

HIMIKO

卑弥呼

Benja Aurrekoetxea Olabarri



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ia ezerezean

bidera irten barik

gorena

zeruetan bizi da

sakuraren zuhaitzpean

Mac Quhae

Paperezko oihartzunak

Durango, azaro aurreratuan.

Ilunabar aldera euria ari zuen berriro, fin, eten barik, eta leihoetako kristal zipriztinduetan kaleko argiak islatzen ziren. Alde zaharreko etxe hartan, denboratxoa isiotuta zeraman irratian, zoli entzuten zen Moonshinerds taldearen “*Zutunik geratu zen azkenengo gizona*”. Akira Takeda Mendibe bere gelako idazmahaian eserita zegoen, antigoaleko egunkari, liburu zaharberitu, eta, gainera, inguruan gutun mordoak zabalik zuela. Bere aitonak egindako ibilbidearen aztarnak ziren, zeinen artean, tinta beltzez itxura emandako esaldi okertuak, margodun arroz paperak, eta japoniar hizkuntzan izkiriaturako poemak eta sinboloak nabarmentzen ziren.

Aitona Itsuo Takedaren heriotzak ez zion bakarrik hutsune emozionala utzi, misterioz betetako altxor dokumentala ere ekarri zuen bere bizitzara. Halako balio handiko bildumari, hiletaren ostean aita Kiotoko etxetik ekarri zionari, gainerako senideek ez zioten aparteko garrantzirik eman, ordea, Akirak jakin bazekien, han, guzti hartan, ezkutuko zerbait gordetzen zela, zerbait berezia, zerbait iluna, eta, aldi berean, erakargarria.

Haietako koaderno baten azken orrialdean, ondorengo hori zegoen idatzita:

“彼女の名は卑弥呼。

我らの血に宿りし霊なる者。”

Bere izena Himiko da, gure odolean bizi den izpiritua.

Akiraren bihotza taupaka arinean jarri zen, eta garuna hausnarrean: “*Geure odolean*” esatea ez al zen gehiegizkoa? Ez al zen metafora poetiko bat baino zeozer gehiago? Edo agian, aitonak benetan sinesten zuen, euren familiaren jatorrian xaman baten aztarna zegoela?

Esku artean erretratu zahar bat zuen, non aitona, oraindik sasoi onean, harro ikusten zen Kiotoko oihanaren barrualdean. Argazkiaren atzealdean data eta izena zeuden izkiriaturak: *1968 Kurama-dera. H.*

—H... Himiko? —Izen hura Akirak bere bizitzan lehen aldiz ahotz ozenduaz ebaki zuen.

Kanpoan euria zaparrada bihurtu zen, eta, une batez, argia etxe osoan joan zen.

Hurrengo egunean, eguerdiko hamabietan, Akira Euskal Herriko Unibertsitate-campuseko liburutegian, egia esan, apur bat urduri sartu zen. Esku artean orri batzuk zituen, bere tutore akademikoarekin zuen hitzordurako prestu.

Irakaslea, Maialen Altube, japoniar kondairan adituetakoa, historialari zorrotza eta sinesgaitza ere bazen. Betaurreko borobilak jarrita, gelaren atzealdean zegoen artikulu zientifikoak aztertzen.

—Kaixo, Maialen, —esan zion Akirak, apur bat kiriotsu.
—Aupa, Akira. Ekarri duzu proposamena? —Galdetu zion tutoreak burua altxatu gabe.

Akirak txostena luzatu zion. Izenburua nabarmentzen zitzaion goialdean: *“Himiko-ren aztarna espiritualak eta identitatearen eraikuntza Japoniako lehen estatuaren sorreran”*.

Irakasleak pare bat orri pasatu zituen eta irribarre sotila atera zitzaion.

—Ummm! Ba, ez da ohiko TFG-a, —xuxurlatu zuen—. Antzinako Japonian xamana, erregina eta Yamaitaikoku lurraldeko gobernaria. Hemendik ikerketa serio bat atera nahi duzu?

—Bai. Aitonak material ugari utzi zidan. Badago dokumentazio propioa, eta, gainera, kultur transmisioari, eta emakumeen lidergoari buruzko ikuspuntu interesgarria iruditzen zait.

—Bai, bai, baina kontuan hartu behar duzu, *Himiko* izaki historikoa dela, baina, baita, mitoz eta sinesmenez inguratutako figura ere badela. Batzuetan... mugak lausotu egiten dira.

—Nik uste dut horixe dela gakoa, —ihardetsi zion Akirak, tonu apalez, baina aldi berean irmo—. Historia ez da beti froga materialetan oinarritzen. Batzuetan, lekukotasun intimoek edo narratiba zaharrek osatzen dute hutsunea.

Altube andreak arretaz begiratu zion, oraingoan bai, zuzen begietara.

—Ados. Onartzen dut planteamendu interesgarria dela. Baina jakin behar duzu Akademiaren esparrua zorrotza dela. Norbaiten fantasiak ez zaitzala hortik zehar eramane. Historia ez da fede kontua, zientzia baino.

Akirak buruarekin egin zuen baietz, baina barrua sutan zeukan. Aitonak utzitako testuak ez ziren ametsak. Hala ere, bazegoen zer edo zer gehiago, berak hala sentitzen zuen, hitzetan ezin bazuen adierazi ere.

Txostena hartu ondoren irakaslea altxatu egin zen.

—Ederto. Egin aurrera. Alabaina, kontseilu bat emango dizut: Ahalegindu zaitez iturri guztiak zorrotz dokumentatzen. Ez dut nahi unibertsitateko tribunalak zure lana eskas antzera botatzea.

—Ulertzen dut. Eskerrik asko.

Akiraren etxebizitza zaharrera gaua isil-isilik heldu zen. Kanpoan, oraindik euria ari zuen, eta ur-tantek malenkoniaz jotzen zuten leihoa. Akira gelan zegoen; han, bere inguruan, liburu eta paper pila zituen, soilik argi apal batek argiztatzen zituenak.

Maialen Altuberen hitzak gogoan zituen oraindik: *"Historia ez da fede kontua zientzia baino."*

Guztiarekin ere, Akirari garunaren barnean beste zerbait mugitzen zitzaion. Ezin zuen guztia analisi hutsera mugatu. Ezin zuen aitonaren ahotsa, bere haurtzaroko ipuinak, eta azkenaldian amets bilakatu zitzaion emakume misterioitsu hura, “isilpeko begiradaz”, zientzia hotzaren azpian estali.

Poliki-poliki, antigoaleko armairura hurbildu zen. Aitonaren kutxa uzten zuen tokia zen. Irekitzean egur zaharrak kirrinka arina egin zuen, eta, paper lodi, ohar, eta gutunen artean, hatzak sartu zituen. Gelako argitasun herabean, argiontziaren erlantzaren kolorea ia urdin hitsa bihurtzen ari zen.

Kutxaren barnean, gutun-azal baten barruan, lehenago ikusi ez zituen sortze-lanak aurkitu zituen. Estalkiaren gainean, Japoniar kaligrafia finez idatzita, ondorengoa begietsi zuen:

秘密の道へ

Sekretuaren bidera.

Akirak barnean zirrara bizia sentitu zuen. Arnasari eutsi zion. Hunkituta zegoen. Ez zuen berehala ireki. Eskua dardara leunak hartua zion, eta bihotza taupada ozenak ematen hasi zitzaion, nolabait beldurtxo eta irrika gozoa sentitzen denean ematen diren antzera.

Azkenean, sortze-lanak zituen gutun-azal mardula zabaldu zuen. Barruan, papertxo berezia zegoela hauteman zuen. Aitonaren letra zen, ordea ez ohiko idazkera lasaian, premiazko estiloan baino, presaka idatzia izan balitz bezala:

“Ez zaitez fidatu iraganaren isiltasunaz. Gure odolak bide bat ideki du, alabaina bide horretan norbera ere galdu egin daiteke. Himiko ez da mito bat, ez behintzat beti.”

Gela berean ez zen beste inor, baina Akirak sumatzen zuen gau hartan ez zegoela bera bakarrik.

Bat-batean euria eten zen. Bere bakardadean, isiltasunak inguratuta, Akirak zoruan argiaren orbanari begiratu zion. Eta bertan, ordura arte ez zegoen zerbait begietsi zuen: Gurutze forma hartuz, tinta beltzez margotutako hiru marratxo azaltzen ziren. Ez zuen gogoratzen halako ezer jarri zuenik. Ezin zuen segurtasun osoz esan, baina uste zuen bera konturatu gabe etxera ez zela inor barneratu.

Izenen artean galduta

Hurrengo goizean nekez beterik jaiki zen, eta aurpegieran lo gutxi eginiko zantzuak azaltzen zitzaizkion. Akira Bilbora abiatu zen, Bidebarrietako Liburutegi nagusira. Egun hura berarentzat ez zen arrunta izango.

Goizeko argitasunaren eskutik heldu zen haize epelak ez zituen bezperako hodei-mataza lodiak guztiz aldentu, eta Alde Zaharreko kale estuetan aire-bafadak hostoak pilatzen zituen.

Barruan, liburutegiko isiltasun hotsandikoan, korridore artean arretaz ibili zen. Aitonaren sortze-lanetan azaltzen zen mezuak ez zion burutik ihes egiten: *"Ez zaitez fidatu iraganaren isiltasunaz"*. Eta horrek bultzatuta zebilen guzti hura argitu ziezaiokeen informazioaren baten bila.

Eraikinaren goiko solairuan, japoniar kulturaren inguruko bilduma txiki bat aurkitu zuen. Ez zen aspaldian berritua, hala ere, apalategiak garbi zeuden, untzuko etiketak zituzten, eta gainera, nobela japoniarrez betetako txoko bat ere bazegoen.

Mahai estu baten aurrean eseri zen. Lehenengo liburu mardula ireki zuen. Yamatai-koku eta Himiko: Estatuaren aurrekariak. Eta beste kontu interesgarriak ere aurkitu zituen: Txinatar *Wei* kronikak, arkeologoen hipotesiak, eta iritzi kontrajarriak. Ez zen harritu behatzean *Himiko* oraindik ere eztabaidaren erdigunean zegoela. Baina halako plama bateko marjinallean, beste esku batez idatzitako zerbaite bitxia kausitu zuen:

もし彼女が戻ったら、誰
Moshi kanojoga modottara dare

Ikusiko du lehenik? Ikusiko du lehenik?
Berriz itzuliko balitz, nor ikusiko luke lehenik?

Akirak bizkarrezurrean behera zimikotxoa sentitu zuen. Ez zen liburuaren testu ofiziala. Norbaitek idatzia zen. Eta behealdean izen bat ere bazegoen:

"Itsuo Takeda"

Inolako zalantzarik gabe, bere aitonaren sinadura zen.

—Ezinezkoa da... —Xuxurlatu zuen.

Guzti hura liburutegi publiko batean nola egon zitekeen? Ezin zuen ulertu. Akirak begirada altxatu zuen. Gela hutsik zegoen. Baina bere barrenean zerbaitek arnasa hartu zuen: Nolabait aitonak bere bila jarraitzen zuela barrundatzen zuen. Eta agian, *Himikok* ere bai.

Orrien artean orduak igaro zituen, hala ere Akirak ez zuen denboraren joana nabaritu. Aitonaren izena liburu publiko batean aurkitzea ez zen ausazko kontua. Are gutxiago, esaldi hura: "*Berriz itzuliko balitz, nor ikusiko luke lehenik?*" Ez zegoen ziur Himiko izango zen, "*berriz itzuliko zena*", edo aitonak berari, Akirari, esaten ziona.

Oharra beste behin irakurri zuen, eta esaldiaren azpian ikusi ez zuen xehetasuna sumatu zuen: Itzalean geratu izan balitz bezala, tinta mehez idatziriko beste esaldi bat. Ezin zitekeen berehalakoan irakurri. Argiaren angelua aldatu zuen eta, orduan, azpiko hitzak irakurgarri agertu zitzaizkion:

"Kurama-dera. 1968. Han hasi zen dena."

Akirak arnasa leun eta sakon hartu zuen, birikak gainezka ipintzeraino. Bezperan etxean aitonaren argazkiaren atzealdean agertzen zen data eta lekua ziren. Beraz, argazkia eta liburua konektatuta zeuden. Eta jakina zitzaion aitonaren istorioa ez zela soilik familiarena. Zer egiten zuen halako sinadura batek katalogatutako liburu batean? Eta zelan zitekeen aitonaren sinadura, han, Bilbon egotea, aitona sekula ez bazen euskal herrira etorri. Bazuen amarekin eta aitarekin argitu beharreko kontua; jakin nahi zuen, ulertu behar zuen materialak Japoniatik Bilbora heltzeko zein bide jarraitu zuen.

Apal batzuen katalogoa piztekoa zenean, mahaiaren puntan zegoen botoi txikia behatu zuen: "Digitalizatutako funtsak" jartzen zuen. Ikerketari ekiteko interesaturik botoia ukitu zuen. Pantaila zuriak izenburu bitxiak zituen dokumentu zerrenda erakutsi zion:

**Kultura sakratuaren transmisioa Yamatai-n.*

**Kurama mendiko irudikapenak eta emakume xamanaren sinbologia.*

**Takeda, Itsuo: –Egunkari pertsonala (digitalizatu gabe).*

**Himiko-ren irudia XX. mendeko bilakaeran.*

Begiak zabaldu zitzaizkion. Aitonaren eguneroko kaiera katalogoan zegoen! Baina "digitalizatu gabe" zegoela ipintzen zuen.

—*Non egon daiteke gordeta?* —Pentsakor jarri zen.

Kasu hartan, artxibozainarekin hitz egin beharko zuen. Alabaina, jakin bazekien egunkari hura gakoa izan zitekeela. Liburuan aurkitutako oharra, etxean ikusitako argazkiaren atzean zegoen izena, eta katalogoaren sarrera bera, pieza guztiak elkartzen hasi ziren.

Eta bat-batean, egonezina. Atzean norbait zegoela sentitu zuen. Ez zen hango zaratatik, isiltasuna baitzen nagusi, ez eta entzun zitezkeen urratsengatik, ez baitzen bat bera ere aditzen. Ordea, Akirari azala hoztu egin zitzaion. Poliki-poliki biratu egin zen..., berriz, ez zegoen inor.

Gela hutsik zegoen. Baina bere barrua ez, bere barnealdea ez zegoen hutsik.

Akira zutitu egin zen. Papera hatzekin ondo estututa, beheko solairuko artxibo-tokira abiatu zen. Behealdea hotzagoa zen, argi gutxiagokoa, eta bertara sartzeko muga gehiago zuena. Atearen gaineko plakak halakoa zioen:

“Funts bereziak – Sarbide mugatua”

Tokia zaintzen zuen emakumea 50 urtetik gorakoa zen, eta oizko boligrafo batekin zerrenda bat osatzen ari zen. Begirada zorrotza bazuen ere, adeitsua zela ematen zuen. Paparrean ezkerretara zuen txartelak halako izena jartzen zuen: Garbiñe Irurita, eta behealdean, Artxibozaina.

—Barkatu... —esan zion Akirak, ahots apalez—. Egunkari baten bila nabil. Katalogoan ageri da: *Itsuo Takeda – Egunkari pertsonala*. Goian jartzen du ez dagoela digitalizatuta, baina baliteke hemen gordeta izatea, ezta?

Garbiñek burua altxatu eta segundo batzuk gazteari begira geratu zen. Izena entzutean, paper bat hartu zuen eta artxibategiko ordenagailuan klikatzen aritu zen.

—Ez da ohikoa ikasle batek honelako funtsak eskatzea. Baina egia da... hemen dago. Artxibo kodetua du: *JP-TKD/1968/01*.

—Badago eskuragarri?

Garbiñek ez zion berehala erantzun. Tiraderatik giltza hartu, albo batean zegoen beirazko atera joan, eta, une batez, handik desagertu egin zen. Akirari isiltasuna astuna egin zitzaion eta arnasari eutsi behar izan zion.

Liburutegiko langilea handik bi minutura bueltatu zen, paper zorro lodia esku artean zekarrela.

—Hau da. Baina baldintza batekin uzten da: Honen kopiarik ezin da egin, argazkirik ere ezin zaio atera, eta hemen bertan kontsultatu behar da, mahai horren gainean.

—Ados. Mila esker.

Garbiñek zorroa mahai gainean utzi zuen, eta Akira eserita geratu zen, gertu zeukanaren garrantziaz jabetuta, bihotza taupaka zolian zuela.

Azal lodiko kaiera Japoniako egutegi tradizionalaren datarekin hasten zen: Shōwa 43. urteko udaberria, Kurama mendian.

Eta lehen orria era horretan hasten zen:

Ez nuen uste honako hau idatziko nuenik. Gauzak aldatu egin dira. Emakume bat agertu da, bere burua Himiko-ren espirituaren oinordekoa dela dioena. Eta egia esateko, ezinezkoa zait guztiz ukatzea.

Akirari begiak zabal zabalik jarri zitzaizkion. Ez zen artikulua akademiko bat. Ez zen kronika hutsa. Hura aitonaren aitortza zen. Eta kaieraren kontrazalean, tintaz pintatutako buru-iluneko emakume baten margozkia zegoen itsatsita. Marrazkiaren azpian izen bat:

H.

Akirak ingurura begiratu zuen. Irurita andrea ez zen bertan aurkitzen. Mahaiaren eskuin aldean, ordura arte ikusi ez zuen orri baten ertza zegoen tolestuta. Zabalduta eta halako mezua idatzita zegoela konturatu zen:

Ikusten baduzu... ez zaude bakarrik.

Akirak eskuak luzatu zituen eta eguneroko kaieraren hurrengo orriak poliki-poliki pasatzen hasi zen. Plama bakoitza tinta beltza eta urdina nahasiz izkiriaturik zegoen, tarteka marrazki txikiak, sinboloak, eta hizkuntza aldaketak agertzen zituela.

Martxoaren 15a, 1968 — Kurama-dera tenplua, Kyoto.

Lehen gaua Tenpluaren inguruan igaro dut. Isiltasun handia dago hemen, gizakiak sortu dezakeena baino zaharragoa. Eta beldurra ez da kanpotik etor daitekeena, barnetik baino. Gaur emakume bat azaldu da. Ez du bere izenik eman, baina haren mintzoa ez da izan soilik ahotsa, antzinako erara botatako orroa baino, mendi hauetan lainopean entzun daitekeen antzerakoa.

Martxoaren 16a

Himiko izena lehen aldiz entzun dut bere ahotik. Ez du esan “ni Himiko naiz”, “ni haren oihartzuna naiz”, baino. Gaur, sutondoan, begira egon gara luze, hitzik eman gabe. Eta zeozer ulertu dut: Nik zerbait entelegatu nahi nuelako bera ez dela nigana gerturatu, nik bere istorioa gordetzeko baino.

Martxoaren 17a

Goizean, ohetik jaiki naizenean, eskuineko besoan orbain moduko zirkulu bat agertu zaidala jabetu naiz. Ez dit minik ematen. Emakumeak "seinalea" dela esan du, baina ez dit gauza gehiagorik azaldu. Bakar-bakarrik halako hori gaineratu dit: “Seinale hori ezin izango du mundu guztiak ikusi, baina zuk bai, zu begiratzen ikasten ari zata eta”.

Martxoaren 18a

Japonian aurkitu daitekeen historia ofizialetik haratago, badira isilpekoak diren bide paraleloak, eta aipatzen dudan emakume hori halako bide bat da. Haren ahotik kontatu gabeko gertaerak datozkigu, eta ezagutzen ez diren izenak ere bai. Eta, lo dagoen artean, bereziki izen bat behin eta berriro errepikatzen du: Takeda.

Akirak poliki-poliki orrialdea itxi zuen. Bihotza taupaka zuen, ez beldurra sentitzen zuelako, ezen ez baitzuen horrelakorik, nolabaiteko lotura sentitzen ari zelako baino. Aitonaren historia ez zen soilik iraganeko bidaia. Haren testigantza aitortza eta agian... abisua ere izan zitekeen.

Tintaz egindako emakumearen marrazkia zuen eguneroko kaieraren kontrazala berriro begiratu zuen. Irudian ez zen aurpegia zehaztasunez ikusten, ordea, haren begiek iluntasunaren barruan distira egiten duen antzerako zerbait zeukaten. Akirak berak ziurtasunez zergatik ez bazekien ere, halako begirada ezaguna egiten zitzaion.

Zehaztugabeko mapa

Astelehena, goizeko zazpiak.

Akira eguzkiaren lehen izpiak bisaian pausatzen zitzaizkiola esnatu zen. Aitona Itsuo Takedaren eguneroko kaiera ezin zuen burutik kendu, eta gainera, emakume haren marrazkia ere garunean nekez lausotzen zitzaion. Gau osoa eman zuen ametsetan, nolabait astroen bidaia hegan egin izan bazuen antzera: Baso artean galdutako tenplu itzel ederra, emakume berezia urarekin hitz egiten, eta ikur deigarria bere besoan zelan azaleratzen zitzaion jabetzen zebilen.

Ez zuen zalantzarik: Ikerketa-lanak ez zuen soilik akademikoa izan behar, bere barnera egingo zuen bidea ere azaldu nahi zuen, era hartan, aitonaren idazkiek irekitako ateak ez ziren sekula itxiko.

Bezperan erosi koadernoan hiru izenburu handi idatzi zituen:

- 1.- Kurama-dera
- 2.- Himiko-ren oinordetza
- 3.- Takeda familia

Eta azpian, baieztapen bakarra jarri zuen:

Neure aitaren aldeko familiakoa ere banaiz!

Goiz hartan, Bilboko Arte Ederren Museora jo zuen. Han zeuden arte asiarreko piezen artean, bazeuden bereziki bere gustukoak zirenak, izan ere 1990. inguruan dohaintzaren ondorioz lortutakoak. Haiek bai erakartzen zutela: "Japoniako familiaren bilduma" izenpean museoak eskuratu zuena. Museoko artxibo digitalizatuan sartu zen, eta berak inolaz ere pentsatuko ez zuen izen bat agertu zitzaion: *Itsuo Takeda –emakume xamanaren irudikapena; suminagashi teknikarekin egindakoa.*

—Baina... ez al da...?

Pantailan agertzen zen deseina ez zen aitona Itsuoren eguneroko kaierako kontrazalean azaltzen zen irudikoa, baina bai oso antzekoa. Aurpegia erabat ezkutuan zuen, alabaina, begiak, begiak ziren norberaren begiradak gogoan hartzen dituenak.

Museoko artxibozainari galdetu zion lan hura ikusteko aukerarik ba ote zuen. Langile gazteak eskaneatutako irudia erakutsi zion ordenagailuan:

“Oharra: artelana gordailuan dago, ez dago ikusgai. Kotsultatzeko aukera bakarra baimen bereziarekin soilik.”

Akirak zirrara ikaragarria sentitu zuen, ikerketaren lehen hariaren muturra esku artean zuela jabetu zenean. Eta aipatu hiru pista haiek, —Kurama, Himiko, Takeda—, ez ziren soilik ikasketa gaiak. Bere benetako sustraiak, nortasuna, eta iraganaren oihartzunak elkar gurutzatzen ari zitzaizkion.

Bilboko Arte Ederren Museoko bulego administratiboetan, ez zen ohikoa gordetako bilduma baten artelana ikusteko baimena ikasle batek eskatzea, are gutxiago, tintaz marraztutako taulatxoan interesa agertzea. Baina Akirak ez zuen zalantzarik, usaintzen zuen zerbaiten atarian zegoela.

Formularioa bete behar izan zuen: Izen-abizenak, ikasketak, ikerketa-proiektuaren titulua. Eta goiko aldean, marrazkiaren izenburu bitxia:

“Emakume isildua, Itsuo Takeda-ren dohaintza.”

Ettxera bueltatu zenean, aitonaren eguneroko kaierako azken orriaren behealdean, ordura arte ikusi gabea zuen pasarte bat aurkitu zuen. Tolestuta zegoen, erretxina naturalez atxikia. Ireki zuenean, ondorengo hori leitu zuen:

Ez dago mapa argirik, ordea, zure odolak badaki norantz joan behar duen.

Eta lehen aldiz, Akirak bere besora begiratu zuen. Eta hantxe zeukan, larruazalean agertu zitzaion zirkulu baten itxurako orban leuna. Ez zuen gogoratzen besoa inoiz inolako zauririk izan zuenik.

Bi egun beranduago baimena lortu zuenaren berri izan zuen. Museoko beheko solairuan, aire girotua zuen gordailuan, argi neutroa heltzen zitzaion mahai zuri baten gainean erakutsi zioten artelana. Kutxa ireki, paperezko azal bereziak estalitako taulatxoa atera... eta Akirak arnasari eutsi zion.

Tintaz marraztutako emakumeak begirada bitxia, erakargarria zuen, fidantzia eta sosegua igortzen zuena, edonondik behatuta ere begiekin jarraitzen dizun horietakoa, eta, behin harrapatuz gero, nekez lagatzen duena. Eta haren inguruan sinbolo batzuk ikusten ziren: Eguzkiaren forma, itxuraz labirintoa zitekeen espirala, eta zirkulu baten barruan hiru puntu beltz.

—Hiru puntu... —Xuxurlatu zuen.

Zehazki ez ziren berdinak, baina eguneroko kaieran zeuden seinaleekin parekatuz antz handia zuten. Eta ordukoan, marrazkiaren behealdean, tinta grisez izkiriaturako beste hitz batzuk azaltzen ziren:

Kuramako bihotzean, emakume batek zain jarraitzen du.

Eta albo batean, sinadura batez gain, ondorengo hori:

“H. + T. = ?”

Une batez, Akirak begiak itxi zituen. “H”, Himiko. “T”, Takeda. Eta “= ?” —galdera zabalik zegoela ulertu zuen.

Museoko langilea ohartu gabe, marrazkiaren atzealdean, tinta ia ezabatua zuen beste sinbolo bat erreparatu zuen:

家 (ie) —*Etxea*.

Bizilekura itzuli zenean, ikur haren esanahia japonierari buruzko liburuan begiratu zuen. Eta testuinguruaren arabera, “ie”, *etxea* izan zitekeen, baita “*leinua*”, eta “*familiaren jatorria*” esanahia ere har zezakeen.

Eta supituan oroitzen hasi zen: Aitonak inoiz aipatu ei zuela, behin Kuraman senitarteko zahar bat bizi omen zela, eta, zehazki ez zekiela zein urtetatik hona inork ez zuela haren berririk.

Eguna iluntzear zela, Akira bere ordenagailuaren aurrean eseri zen, alabaina, ez zuen idazteko gogorik. Aitona Itsuoren testuak, museoko marrazkia, ikurrak... eta “ie” hitza burmuinean bueltaka zituen.

—“Familiaren jatorria”, —esan zuen bere artean.

Telefonia hartu eta ama jartzen zuen ikurrean sakatu zuen. Egunero ez bazuten hitzik egiten ere, harreman oso estua zeukaten. Bere amak, Ane Mendibek, aitaitaren “sinesmen itsua” sekula ez zuen oso gustuko izan, hala ere beti errespetatu izan zuen.

—Bai, Akira! Zelan?

—Ondo. Ama gauza bat galdetu gure dotsut. Aittittek nonoz aitatu otsun Kuraman familiakoren bat eukin ebala?

Isilunea.

—Kuraman? Hara juen zala badakit, baina... senitarteko bat? Zergatik galdetzen dostazu, ba?

—Museuen bere marrazkietako bat topau dot, eta eguneroko kuaderno zaharrean, baten bateri buruz berba eiten dau. Ez dau izenik emoten, dana dala, badiño han andrazko bat bizi izen zala, eta hareri “etxie” deitzen otsala.

Beste isilune luzeagoa.

—Badau istorio zaharra, —esan zion amak, apurka-apurka—. Familia desegin zanien, aittitteren amaren ahizta, edo holangoren bat, mendidjen geratu ei zan. Gerrie galduta egoela uste eben... baina Itsuok beti esaten eban guda ez zala galdu, izkutatu egin zala baino. Bera, ez zala desagertu, aukeratu egin ebala, esan eban behin.

—Da inor ez da akordetan haren izenagaz, ala?

—Ni ez. Hori aitak jakingo dau. Zergatik ez dotsazu deitzen?

—Noz in dozu berba beragaz azkenengoz?

—Oin dala gitxi. A, bai, atzo gabez. Oin Sidneyn edo Canberran, batien edo bestien egongo da. Juen dan martitzenetik Sidneyn egon da, baina gaur batek daki non egongo ete dan. Badakizu bere lana zein dan, ezta?

—Bai, badakit Japoniako gobernuarentzat behar eiten dauela, bertako euren enpresen koordinaziñuen.

—Bai ba. Deituiozu, enbaxadan batzartuta ez badau hartuko dotsu deidje.

—Bai, badakit ama. Baina iguel gurau dot Kiototik deitzie.

—Zeuk aukeratu, laztana.

—Ama, beste gauza bat.

—Esan.

—Beitu, atzo Bidebarrietako liburutegidjen egon nintzen, eta digitalizatu barik dauen aittitteren eguneroko kuadernue dekie. Gainera Arte Ederren Museoan berak erregalatutako pinturak dauz. Zuk badakizu zelan ailegau diezen Bilbora aittitte sekula ez bazan hona etorri?

—Bai, beitu. Zure aittitte hil zanien, Japoniako gobernuko batek aitari kontau otson aittittek ein ebana, ta ein be, zinpien gordetako aginduagaz eindakue izen zan. Badakizu aittitte aparteko pertsona izen zala, zelan esan, ba, gerra handidjen ofiziala izen zan eta horregatik-edo gobernuen lagun asko eukazan, eta opari horrek Bilbora enbaxadaren bidez ailegau ziren. Aittittek etortekue zana aurreikusteko ahalmena eukan, urteetara etorriko dana ikusten dabien horietako pertsona zan, eta horrexegatik eingo eban erregalu hori, ziurtasunez jakin ebalako zu hamen sortuko zinala. Detaile guztidjek aitek emongo dotsuz.

—A, beitu, ze ondo. Aittitte berezidje.

—Bai, Itsuo apartekue zan.

—Bai, ia, berba ingu. Agur ama.

—Bai bihotza.

Akirak baietz egin zuen buruaz. Japonian bizi zen senitarteko emakumea zuen gogoan. Xaman baten oinordeko izatearen ideia ez zen jada irakurketa fantastiko bat soilik. Bere amaren ahotsaz gain, sentitzen zuen urrunetik norbait begira zuela.

Gauean, loaren orduetako ametsik sakonenean, andrazkoa agertu zitzaion: mendian, kimono beltzez jantzita, eta eskuetan katana zaharra oratuta zuela. Ez zuen hitzik egiten, baina begietara so egin zion, eta Akirak bazekien begirada hura ezaguna egiten zitzaiola.

Bidaiaren bazter garbia

Azken egunak urrutira egin zuen, alabaina, Akiraren baitan begi haien arrastoa ez zen guztiz desagertu. Bilboko Arte Ederren Museoan ikusi zuen margolanak, emakumearen irudi zinez zaharrak, ilunpean isilduta zuen zerbait berpiztu zion. Haren inguruan ez zegoen testu ugaririk, ordea Japonia aipatzen zen eta Himiko izena.

Ez zuen zalantzarik, margolan hark bere erraietan zerbait mugitu zion. Ez zen ikusitakoagatik bakarrik, batez ere sentitu zuenagatik izan zen. Soslai begiratuta ere, irudi hark barne-barnean zerbait deigarria gordetzen zuela iruditu zitzaion. Halakoetan, ikertzaile gazteen artean, ohikoa izaten den holako intuizio erretxin hori pizten da. Jakiten da zerbait gehiago falta izaten dela, ordea, zer izan daitekeen ezin asmatu ibiltzen da, eta, ondorioz, bistakoa izaten da, aurrean bide berri bat zabaltzen dela.

Larunbat arratsaldean, Bilboko Plaza Berriko kafetegian, Altxerri kobara sartzeko dagoen bazterrean, bere unibertsitateko irakasle ohiarekin, Ekialdeko kultura eta historian aditua den Ana Elenarekin geratu zen. Ana Elenak jarraitzen zuen zenbait tesi eta ikerketa-aholkularitza egiten, eta aspaldidanik Akirarekin harreman estua zuen. Biek ere bazituzten keinu sotilak gaitasuna antzemateko, eta Ana Elenak begirada bakar batez sumatu zuen Akiraren burua beste toki batean zegoela.

—Oraindik Himikoren inguruan zbiltza? —Galdetu zion irakasle ohiak, kapuchino kafea edatera zihoan unean keinu xumea egiten ziola.

—Bai. Ezin dut burutik kendu. Zenbat eta gehiago irakurri, orduan eta gehiago sentitzen dut ez dela kondaira hutsa. Zer gehiago dagoen jakin behar dut. Eta, tira... Kurama mendia. Izena hainbat testutan irakurri dut. Zu ere handik ibili zara, ezta?

Irribarre apalaren ostean, Ana Elenak burua apurtxo bat makurtu zuen.

—Bai. Ez da toki erosoia, baina han oraindik badago jendea... Nakamura izeneko emakume bat, adibidez. Kuraman dauka ostatua. Ez da turista bila ibilten den horietakoa, baina pertsona egokia bazara, atea zabalduko dizu.

—Bidali diezadakezu kontaktua?

—*Ez du Internetik, baina telefonoa bai. Bidaliko dizut.*

Isilune labur baten ondoren, Ana Elenaren ahotsak beste doinu batez zera esan zion: —*Akira... pentsatu ondo. Bidaiatu dezakezu, baina ez soilik geografia ikustera. Hara bazoaz, zeure barrura ere joan beharko duzu.*

Hurrengo egunetan, oraindik pauso sendorik eman gabe bazen ere, Akira prestaketan murgildu zen. Hegaldiak parekatu zituen. Kuramako ostatuak bilatu bazituen ere, guztiak xahutuak edo turistikoegiak zirela iruditu zitzaion. Geldiunea egin zuen unibertsitateko ikerketa-baimenaren tramitazioa abiatzeko. Jarraian dokumentuak prestatzen ipini zen, eta, tarteka, beste ikaskide batzuekin hitz egin zuen. Zuhurtziaz jokatu zuen, eta ez zien den-dena kontatu. Ez zuen ezer arriskuan jartzea nahi. Klasera joan eta etxera bueltatzen zen, egunero ohizko bizitza eginez. Ordea, bere buruaren zati handi bat jada han zegoen, ia antipodatan.

Gehienbat gauetan aritzen zen lanean, ordenagailua piztuta, Japonia eta Himiko lotzen zituzten artikulua eta testuak irakurtzen. Arte Ederren Museoan ikusi zuen *margolan harekin* hasi zen guztia, baina jada, handik harago zihoakion gogoia. Berarentzat ikerketa bat baino gehiago zen. Izan nahi zuen norbaiten bidea bihurtzen hasia baitzuen.

Azkenean, Ana Elenak bidalitako telefono zenbakia markatu zuen. Deitzeko botoia sakatu aurretik, amamaren hitzak etorri zitzaizkion gogora:

Zenbait ate behin idekitzen badira, ez dira erraz ixten berriro.

Eta, hala ere, sakatu zuen.

Nakamuraren ahotsak ez zuen ukitu gozori izan, ezta mesfidantza kutsurik ere. Elkarriketa laburra izan zen, nahikoa asmoen berri emateko. Akirak hurrengo ostiralean Kurama geltokira iritsiko zenaren hitza eman zion.

Bidaiaren atean

Akirak etxeko atea itxi zuenean, Mugarra aldetik ilunabarra hodei beltzez betetzen ari zela behatu zuen. Ordu pare bat geroago, euri-lanbroa ari zuen, eta goizaldera arte kaleetan hezetasun handia metatzen joan zen.

Akirak ia gau osoa lo egin gabe eman zuen. Eraman beharreko gauzak maletan sartzen, dokumentuak egiaztatzen, eguneroko kaieran azken marrazkiak egiten. Maparen alde batean, Kurama mendia biribilduta zeukan eta alboan galderez betetako orria. Besteak beste, bi itaun nagusitzen zitzaizkion: *Nor zen Himiko? Izen propio horrek zergatik erakartzen nau hainbeste?*

Logelako atearen parean, amaren gela isilik zegoen. Barruan ez zegoen argirik, baina jabetuta zegoen, han, itzalen eta pentsamenduen artean, zerbait mugitzen zela. Galdera baten oihartzunaz ateari begirada luzea eskaini zion, bere gogoetak han bertan itsatsita uzteko asmoz: *“Zer gordetan dostazu, ama? Zer dakizu zuk nik ondino ez dakidana?”*

Goizean, ama zain zuen egongelan. Berriketak ez zuen luzaz joan beharrik izan. Besarkadak, ahots samurrak, eta begirada jabalak esan zuen esateko zuten guztia.

—Bueltau zaitez osorik, —erregutu zion amak, ahotsa dardarti nabarmentzen zitzaiola. —Eta... idatzi, mesedez. A, eta deitu aiteri. Ahaztu barik, entzun?

Akirak burua makurtu zuen. Ez zen gai izan hitzik ahoskatzeko. Bat-batean aita ekarri zuen gogora. Irudikatu zuen harengana hurbiltzen zela eskua sendotasunez emateko. Haruto Takeda, haren izenak eguzkiaren hegaldia esan nahi bazuen ere, samurtasunetako kontuetan ez zen gizon trebea, ordea, une hartan, alabarekin egin zuen laztan hartan, barreak erantsita geratu zitzaizkien, baita beldurrak, eta ametsak ere bai.

Autobusez, Loiurako bidean, islatuta zegoen leihoan bere begitartea behatu zuen: Ile beltz kizkurra, begi txiki beltzak, bisaian egunsentiaren argi arrosa, eta Himikoren izenik ez zuen maleta, ordea, haren itzalez beteta

zegoena. Gainera, nabarmen antzematen zitzaion, barne-barnean galdera bat bueltaka zebilkiola: *Historia bat ikertzeroa noa... ala nire arbasoen historia bilatzeroa?*

Bilbo-Madril, Madril-Tokio. Aireportuetan dena zen lerro, kontrol, eta zainketa.

Lehendabiziko hegaldian apenas ezer gutxi. Alabaina, Akirak nekez ahaztuko zuen hegazkin hartan sartu zeneko egun hura. Bere herriko eguzkia leihotik begiesten zuen, Untxilaitz, Mugarra, Leungane, eta Gaintzorrotz haitzen artetik jaikitzen zela, eta bihotza erritmo zolian, baina aldi berean sosegu gozoan ezarri zitzaion, norabide berria hartu zuenetik lehen aldiz lasaitasuna senti araztekoa izango zuena. Bere ondoan, motxila txikia zuen; eguneroko kaiera mardula, pasaportea, amak azken unean emandako ogi zatia, eta barruan gordetzen zuen sentimendu berria: Ez zen beldurra, ordea, bai, irrikaz nahasitako urduritasun bizia.

Bigarrenean, hamabi orduko isiltasun zabal batean murgildu zen. Alboan eseri zitzaion emakume japoniarra atsoa zen, kimono modernoaren itxura zuen jantzia soinean zuena. Arineketan hartu zion loak, eta Akirari iruditu zitzaion haren eskuak otoitz-keinu batean bilduta zituela.

Leihotik itsasoa eta kontinentea zeharkatzen zuten lainoak ikusi zituen. Oroimenera Ana Elenaren ahotsa heldu zitzaion: “*Ez pentsa Himiko izena liburuetan bakarrik agertzen denik. Nik lehen aldiz Kyoton entzun nuen. Tenplu baten eskaileretan izan zen, ilunabarra aldera emakume atso batek kontatu zidan erdi historian, erdi istorioan*”. —Bien begiradak elkartu ziren, eta irakasle ohiaren hitzek aurrera egin zuten—. “*Ez dut sekula ahantziko emakume hark esan zidana: Himiko menditik itzuli zenean ez zen gehiago bera izan.*

Akirak gogoratu zuen Ana Elenaren begietan irakurri zuena. Irakasleari Japonian zerbait gertatu zitzaion, han zeozerk aldatu zuen, eta orain berari gauzaren bat igorri nahi zion.

Bidebarrieta liburutegira joan zeneko eguna amaitu, eta berriro unibertsitatera itzuli zenean, Akira proiektua birpentsatzen hasi zen. Jada ez zen ikerketa neutroa, barrutik piztutako zerbait baino. Artea, mitologia, eta genealogia uztartuko zituen, bere historia ardatz bihurtuz.

Aste amaieran, amak isilik azaldu zion egia bat. Egongelako leihoaren paretik eguzkia sartzen ari zen:

—Takeda ez da abizen arrunta, —esan zion amak, apal—. Zeure amamaren aittitte be alde horretakue zan. Kurama inguruen jaio eta basoko eremita bateko zaindaridje izen ei zan.

Isiltasunak bete zuen etxea. Akirak negar xaloa sumatu zion amari, eta bere barnean lur sendoa arrakalatzen hasi zela. Ama urte askoan harresia izan zen, orain ordea atea zen.

Elkarrekin kutxa zahar bat ireki zuten. Argazkian andrazkoa mendian ikusten zen, eta esku-idazkeraz betetako folio tamainako papera bi hizkuntzatan izkiriata zegoen, Euskaraz eta Japonieraz. Akirak orri zaharra hatzekin laztandu, eta azken esaldia irakurri zuenean, inurridura antzerako zeezer sentitu zuen bizkarrezurretik behera zihoakiola:

Gogoratu: Mendiko emakumeak isilik egonda daki zer dagoen.

Ez zuen jakin esaldi hura nori egokitzen zitzaion. Ordea, bazekien laster mendia, emakumea, eta isiltasuna ere, bere bizitzaren erdi-erditik igaroko zirela.

Lurreratzeak gorputza astindu zion: Ordutegi berriak, koloreak, soinua, jendea, eta kaos misteriozua ordena perfektu baten barruan zeudela antzeman zituen. Tokion lehen gaua, Narita inguruko ostatu politean igaro zuen: Tatamia, paper-hormak eta te beroa. Telefonoan tren-ordutegiak berrikusi eta Nakamuraren mezu laburra berrirakurri zuen:

Ez galdu trenik. Ez galdu zure nahia.

Hurrengo egunean, goizaldeko trenak Kyotorantz eramane zuen. Eraikin altuak atzean geratu ziren, eta paisaia berde zabalak hartu zuen lekua. Lainopean zeuden basoak, egurrezko zubi zaharrak, eta ibaien gainetik hegan zebiltzan uso beltzak begien aurrean panorama bitxia jartzen zuten. Kurama izeneko oihaanaren seinaleak agertu ziren, eta Akiraren bihotza taupadaka hasi zen bizkor eta pozik.

Kuramako geltokian jaitsi zen. Haize freskoa zetorren hurbileko sugi-z beteriko basotik, japoniar zedro arboladitik alegia, eta behezagotik emeki heltzen zen iturri baten hotsa. Inor ez zegoen bere esperoan, ez Nakamura,

ez eta inolako ahotsik. Baina Akira ez zen bakarrik sentitzen, barne-barnetik aditzen zuen norbaitek deitzen zuela.

Geltoetik aldapan behera abiatu zenean konturatu zen ez zeukala planik, ez eta ibilbiderik. Han zegoen, bere jatorriaren atarian, mundu zahar eta berriaren mugan. Eta orduan ohartu zen, laino artean erdi ezkutatuta, gorako zidorrean mendia nabarmentzen zela.

Ostatua erraz aurkitzekoa izan zen. Xumea zen eraikina, egurrezko atea, paper-hormak, eta tatami usaintsua. Zapatilak atarian utzi ondoren, gela txikian sartu zen. Zuriz margotutako pareta bakarra zuen, paper-geruzarekin estalitako ate arina, eta batetik bestera zebilen haize erneak egurrezko zoruaren karraska leuna disimulatzen zuen. Lotarako prestatu aurretik amak emandako zaharkitutako papera ideki zuen. Bere amamak eskuz idatzitako hitzak ziren, japonieraz eta ikurrez tartekatuta zeudenak. Ez zuen den-dena ulertzen, ez esaldi guztiak, ezta sinboloak, baina azken hitzek bihotza ziztatu zioten:

Gogoratu: Mendiko emakumeak isilik egonda daki zer dagoen.

Akira logale zen eta zoruaren gainean bilduta etzan zen pentsakor. Hara joatearen arrazoia hasi berri zuen. Ordea, egiten ari zena ez zen soilik nolabaiteko osteratxo akademikoa, ez eta geografikoa, sakoneko bidaia zen, barne-barnera zihoakion kamioa. Eta mendiaren itzalpean, isilik zegoen emakumea zain zegoen.

Mendiko isiltasuna

Gelako atea zabaldu eta korridoretik patio barnera ilki zenean, nabaritu zuen lehenengo gauza isiltasunaren zama izan zen. Ez zen hutsunearen barruko hutsa, ez. Isiltasunak bazuen gorputza, arnasa, eta mugimendu geldoa; ukitu zitekeen zerbait zen. Kuramako mendialdean, naturaren hotsak hitzak baino gehiago balio zuen: Momiji-en arteko haizearen igurtzia, astigarren artetik iristen zena alegia, sugi-en kolore gorri okreak, txorien txorrotzio bakartiak, eta orduak zenbatzen ez zekien uraren tanta motelen ezohiko soinua.

Ostatuaren jabea, Nakamura andereñoa, emakume argala eta arteza zen, ile urdindua, aurpegia zimurrez betea, alabaina begirada gardena zuena ere bazen. Lehen orduetan, Akirari hitz gutxi batzuk soilik eman zizkion. Giltza luzatu, ohera goiz sartzeko gomendioa egin, eta grinaz beteriko desiorik bazuen, mendiko bide zidor zaharrak ezagutzeko aukera eskaini zion.

Bigarren egunean, atariko belardian eserita zegoela, Nakamura lurruna zerion katilu beroarekin hurbildu zitzaion. Te berdea zen, itxuraz ohizkoa zela ematen zuena, alabaina Akirak ez zuen sekula halakorik dastatu. Ez zen bakarrik zapore kontua, ez, eztarritik behera jaistean zerbait iluna eta sakona sentitu zuen.

—Hemen lehenago egon izan zara? —Bat-batean, andrazkoak ahots leunaz galdetu zion.

—Ez. —Ihardetsi zion Akirak—. Lehen aldia da... eta ez dakit zergatik, baina ez zait guztiz arrotza egiten.

Nakamurak burua okertu eta, segidan, mendiari so geratu zen.

—Kuramak ez ditu denak berdin onartzen. Batzuei atea idekitzen die. Beste batzuren aurrean... isilik geratzen da.

Akirak ez zuen ezer esan. Hala ere, barruan zerbait mugitzen hasi zitzaion. Bere amak emandako paper zaharreko hitzak, berriz entzun zituen garunean: *Mendiko emakumeak, isilik egonda daki...*

Gaua heldu zenean, behin eta berriz saiatu bazen ere, ezin izan zuen lotan geratu. Leihoa erdi irekita utzi zuen, eta tarteka basotik barneratzen zen haize hotzak paperezko atea astintzen zuen. Kanpoan ilun zegoen, ordea, zeruan ilargi mehea argitara atera zenean, mendiaren gaineko silueta beltza etengabe lotu zen ikusgai.

Eguneroko bizipenak idazten zituen kaiera zabaldu zuen, eta lehen aldiz bertan ez zuen daturik idatzi, ezta aipamenik ere, soil-soilik hitz solte batzuk:

Hemen badago zerbait. Ni ez naiz honaino informazio baten bila bakarrik etorri. Zer edo nor ari da ni deitzen, eta, gainera, ez dakit prest nagoen.

Goizeko bostak aldera-edo, amets sakona bizi izan zuen: *Pagopean eserita zegoen zuriz jantzitako emakume isila berari begira agertu zitzaion. Alabaina, ezin izan zuen haren begitartea behatu, eta, zerbait ahoskatzen bazuen ere, ezin izan zion ezer aditu. Baina, berak bazekien zerbait esaten ziola. Eta esnatu bezain laster, Akirak mendira igotzea erabaki zuen.*

Gosaldu ostean, Nakamurari agur esan zion. Emakumeak ez zion ezer galdetu, ordea, bidean jarri aurretik, zerbait argitu zion:

—Gauza batzuk galduta daudela ematen dute, baina gura dituzun kontu horiek kausitzeko prest bazaude... mendia ez da isilik geratuko.

Eta bizkarrean motxila eta bihotzean galdera bakarrarekin, Akira lehen aldiz igo zen Kuramako bidexka estu eta lokaztutik, zuhaitzen artetik, zetorkiona hartu eta aurrera ekiteko prest.

Akira ez zen abenturazalea. Bere herrian ohizkoa bazen ere, berak ez zuen mendizaletasunik jorratu, eta, jakina, orientatzeko ez zuen imanorratzik ez eta maparik eraman. Hala ere, egun hartan, urratsak norabide argirik gabe emateak ez zion beldurrik sentiarazten. Eguzkia jagi berri zen eta mendiko aire freskoa, bustia, eta usaintsua arnasten zuen hasperen sakonez. Bide estua zuhaitzen ondotik zihoan, eta, noizean behin, txorien itzalak hostoen artetik igarotzen ziren, abarretan geldialditxoaren antsiaz geratzeko. Negua gertu izanda, oraindinarren sasoi epeletako txorien hotsak entzuten ziren, eta betiko bertako tsuru-ak, lertsunak alegia. Baina tarteka, hango inguruan, isiltasun sakon eta urratu ezina zabaltzen zen. Tamainako bakeak blaituta, Akirak bere bihotzaren taupadak besterik ez zituen entzuten.

Halako batean, bidea zabalduz joan zen eta errubi ilun, beltz, eta nolabaiteko zain zurixka pintzeladak zituen harri distiratsu zapala aurrez-aurre egokitu zitzaion, gelditzera gonbidatzen zuena. Han, halako harri

bitxiaren gainean, norbaitek utzitako eta oraindik fresko zegoen arrosa lorea zegoela begietsi zuen. Hatzak baliatuta jaso zuen, eta berehala aireak handik norbait bazebilela iradoki zion. Gibelera behatu zuen, ordea ez zegoen inor. Eta orduan, garunera heldu zitzaion pentsamenduak lasaitasuna erasaten zion. Bazekien bazegoela zerbait, ez zegoela bakarrik, dena den ez zuen sentitzen arriskuan zegoenik.

Magalean egokitzen zitzaion urkiaren enborrean marka bereziaren antzerako zeozer begietsi zuen: Bata bestearen gainean zeuden hiru ilargi erdi ziren. Ez zuen uste ausazko irudia zitekeenik. Bat-batean, Ana Elenak noizbait marraztu zizkion Himikoren ikurretako bat gogora ekarri zuen: *“Ilargia ez da beti zeruan dagoena, batzuetan, zeure baitan dago.”*

Motxilatik eguneroko kaiera atera eta hatz dardartiez, markaren marrazkia egin zuen. “Norbait ni hemen egotearen esperoan izan da”, idatzi zuen argazki-oin legez.

Gainetik, haize finak adoretuta, zuhaitzen hostoak poliki hasi ziren higitzen, eta eguzkia kotoi itxurako hodei zurixkaren atzean gorde zen. Supituan, gorputzean beroaldi arina antzematen zuela bideari ekin zion.

Ordu erdi inguru geroago, xendraren bazterrean egurrezko ate bat zegoela begietsi zuen. Zurezko egitura zaharra zen, eta haren inguruak ematen zuen ez zela itxuraz zaindua. Sarbideak albo batean zuen plaka txikian zera ipintzen zuen: “Chiyoko no michi”. Akirak ondo ulertzeko moduan zegoen idatzita eta *Chiyokoren bidea* esanahia zuen.

Atetik barneratu eta hesituta zegoen bidexkatik gora egin zuen. Aldapa handia eta luzea zen, eta gainera, erabat zegoen lokaztuta. Haizeak batetik bestera hostoak arrastaka zeramatzan, eta urrunetik ur-jauzi baten zurrumurrua entzuten zen.

Eta han, mendiaren bihotzean, lehen aldiz sumatu zuen zerbait edo norbait bera begira zegoela. Ez zen izan arriskuan egoten denean izaten den sentsazioa, ez eta erabat seguru izaten denekoa ere. Hala ere, une hartan, zerbait, *“zerbait”* esnatu zen bere baitan.

Akirak ez zuen atzera egin.

Chiyokoren atzetik

Maldan gora zidorra estuago egiten joan zen, eta hain zegoen bidea ibilia ezen oinak basatzen hondoratzen hasi baitzitzaizkion. Haizea indarrak berpiztuta zetorren, eta denbora aurrera joan ahala, Akira ohartu zen zerua kolore urdin grisaxkatan bilakatzen ari zela. Zuhaitzak gero eta garaiagoak begiesten ziren, eta, haien artean, tupustean, basabidearen bukaera agertu zen, non zurezko ate txiki bat arku erako egitura batean sartuta zegoen; torii-a zen, gizatiarren mundua eta sakratua bereizten duena. Sarrera ez zegoen itxita, ordea igarotzeko makurtu egin zen, nolabait kami-ei, edo jainkoei, edo eta espirituei errespetua eta apaltasuna agertzeko-edo. Sarbidea gurutzatu zuenean, airearen tenperatura aldatuz joan zen eta kandela zaharrak, egur hezea, belar lehorra, eta guztiaren nahasketaren usaina sudurretik gorputz osora hedatu zitzaion.

Orduan, basoetan egokitzen diren halako zabalgunean plazatxo modukoa kausitu zuen, non erdi-erdian teilatu kurbatua zuen etxe xume eta iluna ezarrita zegoen, eta, haren inguruan, estrategikoki kokatuta, harrizko figurak zeuden. Ez zen tenplu bat, alabaina santutegi zaharren antz handia zuen. Eraikinak zurezko atea erdi zabalik zeukan, eta barne aldea argi dardarati urdinxkak erakusten zuen.

Atearen ondoan, egurrezko taula batean grabatuta zegoen sinbolo bakarra behatzen zen: Hiru ilargi eta haien azpian giza begi bat. Akirak hasperen sakona egin zuen, ezen, berriz ere, zer edo nor ari zen berarekin kontaktatzen. Eguneroko kaiera atera, eta pentsakor geratu bazen ere, ez zen gauza izan ezer idazteko. Ezinezkoa egin zitzaion une hura hizkiekin azaltzea.

Zoladura zaharrean sartu zenean, barruko giroa hotza eta goibela iruditu zitzaion, eta halakoa izan bazen ere, Akirak ez zuen beldurrik sentitu. Hormetan japoniar kaligrafia dotorez betetako idazki zaharrak ikusten ziren, haietariko batzuk urteen poderioz ia ezabatuak zeudenak. Mahaian, zeremonia xume baten arrastoak zeudela ohartu zen. Katilua, kandela, eta gauza bitxien artean bazegoen egurrezko txanpon zaharra, erdian zirkulua, eta kanpoaldean grabatutako irudia zuena; eskuak zabalik zituen emakumea zen, eta haren atzean ilargi osoa.

Antigoaleko egurrezko txanpon hura esku artean hartu zuenean, supituan irudia etorri zitzaion garunera. Ametsean azaldu zitzaion emakumea zen, ilargipean eserita, eskuak zabalik, eta ahotsik gabe hitz egiten ziona. Bazirudien ez zuela zentzurik, edo akaso bai; ordura arte bizi izandako guztia ez zitzaion iruditzen irudimena soilik izan zitekeenik.

Barrurago joan zenean, albo batean egurrezko kaxatxo bat topatu zuen. Haren barruan, paper zaharrean esku trebeak idazkera finez idatzitako ondorengoak zegoen:

Chiyoko azkena izan zen. Isildu bazuten ere, hemen egon da beti. Bere ahotsa ez da sekula galdu.

Akirak ez zuen ezer ulertzen, alabaina bazekien Chiyoko izena bere amak emandako paper zaharrean agertzen zela. Ezinegona, jakin-mina, eta lilura nahastuta zituen sabelean. Zer esan nahi zuen "*azkena izan zen*" mezuak? Zergatik zioen "*isildu zuten*"? Eta zergatik mantendu zuten leku hartan, basoaren barru-barruan gordeta?

Atea ixtera zihoala, atze aldean soinua aditu zuen. Ez zen oihua izan, ez eta urratsa. Ahots xuxurlaria zen, batzuetan lagunaren artetik etortzen den antzerakoa:

—Akira...

Ez zuen ulertu nork ahoskatu zuen bere izena, ordea, egia zen bere izena entzun zuela. Eta orduan entelegatu zuen bere seigarren zentzumenaren barrutik atera zitzaioala; entzumena eta ikusmena baino askoz ere biziagoa izaten dena; hura bere sena zen. Ez zen leku bat. Ez zen objektu bat. Zerbait barruan esnatu zitzaion. Eta horrek bultzatu zuen kanpora ateratzera, arnasa hartzera, alabaina, jada mundua ez zen ordura arte antzeman zuen bezalakoa.

Kuramako basotik jaitsi zenean, eguna bere azken argiak galtzen hasita zegoen. Oinetakoak lokaztuta zeramatzan, eta arnasa motel, baina sakon hartzen zuen. Ostatua urrutitik ikusi zuenean, leihoetan barruko argiak islatuta azaltzen ziren, eta Akirak goxoa sentitu zuen, non eta bere bizitzako lekurik ezezagunenean, esaterik balego.

Nakamura andereñoak atea ideki zion berak zabaltzeko saiakerarik egin aurretik. Akirak ez zion galdetu zergatia, kontu arrunta izango bazen antzera hartu baitzuen.

—Onik bueltatu zara! —Esan zion andrazkoak baieztapen erara, eta gero isilik geratu zen. Gelara abiatu ziren. Mahai txikian te beroa eta trapu heze epela zituen prest.

Akira eseri, teaz beteriko katilua eskuetan hartu, eta emakumeari begira lotu zen.

—Ez dut amets bat izan, ezta fantasiarik ere. Bide baten amaieran, etxe txiki bat aurkitu dut. Sinboloak, mezu bat, eta Chiyoko izena ikusi ditut.

Nakamurak begirada zorura jaitsi zuen. Akiraren hitzek ez zuten ustekabeen harrapatu. Astiro-astiro burua mugituz hasi zen hitz egiten:

—Chiyoko... Zuon ama ez zen lehenengoa izan, eta zu ere ez zara azkena izango.

Isiltasuna luze joan zen, alabaina ez zen deserosoa izan. Beste maila bateko isiltasuna izan zitekeen, akaso onarpenarena.

—Nakamura, nor zen Chiyoko? —Ahots ozenez galdetu zion Akirak, ordea barrutik sortzen den beldur saminarekin atera zitzaion.

Nakamurak ez zion zuzenean erantzun. Gela barnera joan eta egurrezko kutxa txikiarekin bueltatu zen. Barruan, idazkera finez idatzitako papera ikusten zen, eta idazkia ez desegiteko haria zuen josita.

—Hau zuretzako utzi zuen. Ez da nik hemen gordetakoa, gaur arte lekuak berak izan du ezkutatuta.

Akirak ez zuen ideki berehala. Eskuetan eduki zuen; lehenengo paperaren bero eza eta antzinako usaina sentitu nahi zituen. Eta orduan zerbait gertatu zen.

Gela berean, airearen antzeko mugimendu bat sumatu zen, paperaren ertzak higitu zituena, eta Akirak begirada jaiki zuenean, andrazko ezezaguna ate ondoan zekusan. Ez zen gardena, ez zen itzala, osoa zen, eta ordukoan haren aurpegia ikus zezakeen. Begi sakonak zituen, hazpegi lasaiak, eta irribarre sotila. Ez zen atsoa, ez eta gaztea, denboratik haratagokoa zela ematen zuen.

Ez zuen hitzik ahoskatu. Emakume hura hurbildu eta eskuarekin Akiraren bekokia ukitu zuen. Une hartan, dena gelditu zen. Ez zen soinurik entzuten, ez zen inolako mugimendurik behatzen. Alabaina ukitu hark ez zion minik eman, barruko zerbait astindu baino: Irudiak, esaldiak, hizkuntza

ezezagunak, amaren ahotsa... dena bat egin zen ulermenaren argitasunean. Denboran iraun zuen flash antzerakoa izan zen, itxuraz erlantza izan zitekeena.

Eta, supituan, emakumea desagertu egin zen, baina ez atetik jalgita, ez, ez eta... Akirak berak ere ez zekien nolako zeretan zertuta. Ez, airean desegin zen, beroak ura lurruntzen duen erara.

Akira besaulkitik astiro jaiki zen. Nakamura bere aitzinean zutik zegoen, eta ezpainetan irribarre xeheaz zera esan zion:

—Orain bai, orain iritsi zara.

Arrastoaren barnean

Kuraman gaua isilean igaraten zen, hala ere, Akiraren baitan orduak nagiturik bezala higitzen ziren, sorrago baleude antzera. Galderarik egin gabe, Nakamura logelara joan zen. Atea emeki hetsi zuenean Akira bakarrik lotu zen, besoak zurezko mahaian ipinita, kandela mutur baten argitan. Mahaiaren erdian oraindik josita zegoen paper-biribilkia behatzen zen, eta aldamenean hozten ari zen katilu bete tea.

Zain egon zen, barneko ahots batek esan ziona antzeman zuen arte: “*prest zaude*”. Eta orduan, haria askatu eta papera zabaltzen hasi zen.

Begien aurrean, japoniar idazkeran letra fin eta garbia zuen idazkia azaldu zitzaion. Ez zuen inolako zailtasunik han izkiriatura zegoena entelegatzeko. Eta irakurtzen hasi zen:

****“Aitaren izen barik hazi zinen. Halandabe, haren izena ez zan falta izen zeugan egoelako, ilargiaren geizpetan moduen, isilik.*

Jakin badakizu zeure odola ez dala euskalduna bakarrik. Mendidjetan bizi izen zan andrearen arrastuen badago gaur arte ailegatzen jakun hari zaharra.

Chiyoko eban izena. Eta berak zera esan ostan: Zeure seme-alabek ez dabie egidje izkutuen eukin biher. Zeure izena, bera izengo da zubidje.

Horregatik da Akira zeure izena. Argitasuna. Bidearen izena.

*Ez da bakarrik ikerketa bat. Zeure bidaie da. Geure memoria berpizteko azken aukera.”***

Akirak irakurketa eten zuen. Begiak busti-bustita zituen, alabaina ez zituen igurtzi. Ez zuen negar egin nahi. Sentitzen zuena ez zen mina, ez eta samina. Ez zen galera. Hala ere, denbora guztiak batera etorri zitzaizkion: Eta gogora etorri zitzaion baita, ia argirik gabeko gela batean, bera oso txikia zela, ama ikusten zuela, isil-isilik paperak irakurtzen, eta, batzuetan, izen ezezagun batzuk marmarrean errepikatzen ere bai. Eta berak ez zituen izen haiek entelegatzen, alabaina, garunean zizelkatuta bezala gorde zituen.

Paperaren amaieran ondorengo horixe jartzen zuen:

“Neuriek ezin ebena ikusi, zeure begidjek beituko dabie. Eta ni neu isilik geratu nintzen lekuetan, zuk zeuk berba eingo dozu.”

Kandelari garra amaitzen ari zitzaion, dardarka jarrita baitzegoen, eta orduan jabetu zen paperaren atzealdean irudi bitxia zegoela marraztuta: Andrazko baten irudia zen, ilargi oso baten gainean zutunik, eskuetan hostoa eta arkua zeramatzala.

Ez zen arte-lana. Ez zen grabatua. Hura zen... ezagutza zaharraren ikurra.

Eta Akirak orduan jakin zuen ez zegoela bakarrik. Sekula ez zela bakarrik egon.

Gorputzaren eta arimaren bidegurutzea

Egunsentian ez zen inguruan oilarren kukurrukurik entzuten, ezta txorien ohiko txorik ere. Basoa isilago barrundatzen zen, alabaina Akira jaikita zegoen. Aurpegia te beroaren lurrinaz hezetu eta eskuak ehun xumeaz sikatu ondoren, papera esku artean oratu zuen. Gau hartan ez zuen lo eurrez egin, ordea ez zuen ematen nekatuta zegoenik, anbar-koloreko argiaren eraginpean lo-kuluxka egindako norbaiten indarra sentitzen baitzuen.

Nakamurak gosarian ez zion ezer galdetu. Zopa gozoa zerbitzatu zion, eta katilua erdira iritsi zenerako Akirak zera erasi zion:

—Nire aurretik beste bat ibili da, eta orain bidea nik amaitu behar dut.

Emakumeak aurpegi jabalean irribarre nimiñoa agertu zuen, eta aldameneko aulkian zuen kutxa mahaiaren gainean pausatu ondoren, tapa ideki zion. Barruan, antigoaleko mapa zegoela begiesten zen: Kurama inguruko bidexken eta eremita txikien zirriborroa zuen margotuta, eta, albo batean, ikur eta oharrak eskuz izkiriatura. Gainera, egurrezko txanpon bat ere bazegoen, aurpegian hiru ilargi eta begia, eta gurutzean zuhaitza agertzen zuena.

—Ez da inork erakutsiko dizun bidea. Baina zu prest zaude, ze behar duzun guztia zeure senean daukazu.

Goizeko zortzirak aldera mendian barneratu zen berriz. Oraingoan mapa poltsikoan zuen, eta eguneroko kaiera motxila txikian. Ez zuen argazkirik atera nahi, ez eta urratsik grabatu ere. Egiten zegoena ez zen turismo bidaia. Ez zuen gehiago ikerketarik egingo. Bidea bera zen egiten zegoen errituala.

Basoko leku jakin batera iritsi zenean, mapan "Ukituaren gunea" izenez ageri zena, haize bolada leunak aurpegiera ferekatu zion. Hostoak airean dantza erritmikoan bezala jarri ziren, eta, haien artean, berriro, figura bat agertu zen: Chiyoko. Oraingoan ez zegoen urrun. Ez zen etereoa, ez zen zerutiarra. Akirarengandik metro batera zegoen, ia ukitzeko moduan.

—Prest zaude? —Galdetu zion andrazkoak, eta harengandik begirik kendu gabe, burua makurtuz, Akirak baietza eman zion.

Chiyokok eskua luzatu zuen, eta Akirak ermamiekin oratu zion. Eskuaren berotasunak ez zion larruazala erre, baina bai zabaldu ziola barneko atea, nolabait neuronak alde jarri izan balizkio bezala. Eta une hartan, Akira ez zen lurrera jausi, ez eta zuhaitzen artera joan, ezta bere gorputzean gelditu ere, itxuraz astroen bidaia egitera jalgi baino.

Iraganerako ibilian zihoan. Herri bat behatu zuen, non andrazkoak zuzendutako errituala begiesten zen. Plaza erdian sua piztuta, haurrak zirkuluan, eta ahots xamurrak kantuan ziharduten. Baina orduan, tupustean jendea isilik geratu zen. Gizon batzuk heldu ziren Chiyoko eramateko. Isiltasuna babestu nahian, euren borondatez basoan desagertu ziren, hura baitzen Chiyokoren desioa.

Orainaldira bueltatu zenean Akirak arnasa galdu zuen. Chiyoko bere aurrean zuen, oraindik eskutik ebatuta.

—Honako gertaera hau, zure gorputzean eramango duzu. Ez da egia, ez eta gezurra, memoria da, gure herriaren oroimena.

Eta Chiyoko hosto itxura hartuta lurrundu egin zen.

Orduan, Akira basoko lur hezean belaunikatu zen. Ez zuen negar egin. Ez zuen hitzik ahoskatu. Alabaina, lehen aldiz sentitu zuen bere arnasa ez zela soilik berea.

Mendiaren bihotzean, egurrezko zutoin batean izen bat zegoen zizelkatuta: Hizuchi-an zen izen hura, eguzkia ipintzen den etxola, alegia. Mapan agertzen zen puntu hura, "eremita isila" izenez ezaguna zena, lehen begiratuan iritsi ezinezko lekua ematen zuen. Ordea, Chiyokoren ukituaren ostean, Akirak ez zuen zalantzarik. Hura zuen eman beharreko hurrengo urratsa.

Eraikin hartara iristeko goiz osoa beharko zuen. Aldapan gorako bidea estua zen, eta zuhaitzen arteko abarretan oraindik geratzen ziren hostoetatik eguzkiaren argia iragazita iristen zen. Halako batean, gurutze bide baten aurrean, zurezko egitura bat begiesten zen. Teilatu iluna zuen, atea itxita, eta kanpoaldean hiru izen bernuzatuta zitueneko antzinako eremita zen:

Chiyoko

Aneko

Itsuki

Ez zen soilik oroitzapenerako leku bat. Izen haiek zerbait gordetzen zuten, eta Akirak berehala bere eguneroko kaieran idatzi zituen. Tenpluaren barruko horman pintura zaharkitua ikusten zen. Andrazkoa zen soinean jantzi tradizionala zuena, eta haren inguruan haurrak jolasean zebiltzan, non airean kadmio, hori, marroi eta okre koloreko hostoak mugitzen ziren. Behealdean, halako testu laburra irakurtzen zen:

"Ez zaituzte izenik gabe desagerraraziko, baina isilarazi nahi izango zaituzte."

Han begiesten zen mahai luzangan, bata bestearen gainean tolestuta zeuden beiraz estalitako paper zaharkituak aurkitu zituen. Haietako bat ideki zuenean, haritza eta ilargia marraztuta zeudela behatu zuen, eta beherago zera zegoen izkiriatuta:

Chiyoko, Haru no. Aneko-ren alaba: Chiyoko udaberrian.

Beste batean:

Itsuki, zubiaren zaindaria.

Eta berehala, barneko hari bat ernetu zitzaion: Ohartu zen, "Aneko" izen zahar hura, bere amaren antigoaleko paperetan ere irakurria zuela.

Ohar guztien artean, egurrezko kaxa txiki bat zegoela begietsi zuen. Barnean argazki zahar bat ageri zen. Andrazkoa zen, gaztea, soinean mendiko arropa tradizionalaz jantzita, eta besoetan haur txiki bat zuena. Ez zuen zalantzarik izan: Argazkiko emakumea bere amama zen, eta besoetan zuen haurra... bere aita.

Orduan, azkenean, bere kaieran lehenengo aldiz horrela idatzi zuen:

Ni ez naiz Akira izena duen neska bat soilik.

Chiyokoren ondorengoa naiz, Aneko-ren biloba.

*Eta nire aita ez zen ezer ez zekien gizona,
memoria baten gordailu bizia baita.*

Motxilan zuen kandela muturra piztu, eta jabetu zen haize leuna doi-doi igarotzen zela hormen barrenetik. Kanpo aldeko haritzaren adarretan, hibari-a zebilen saltoka eta txioka, hegatzabala alegia, eta ematen zuen ez zuela alde egiteko asmorik.

Akira jabetu zen izenak ateak direla, eta ate hura idekita zegoela.

Akira eremitaren kanpoaldeko harrizko eskaileratik jaitsi zenean, mendiko haize freskoa aurpegian nabaritu zuen. Ez zen hotza hauteman zuena, zerbait bukatu eta beste zeozer hasten denean sentitzen dena baino. Haritz zaharraren ondoan eseri eta kaiera berriz zabaldu zuen. Ez zuen bere bizipena laburtu nahi, ezta inolaz ere unibertsitaterako txosten akademiko soila idatzi. Dena den, mezua bidali behar zuen. Mezua Durangora, edo ama Bilbon izango zuen? Zalantzan jarri zen. Hala ere, batean zein bestean egon pareko ziezaiokeen, mezua abiadura berdinean helduko baitzitzaien.

Mugikorra piztu eta han Wi-Firik ezta ezelako seinalerik ez zegoenez, geroago bidaltzeko testu berria prestatu zuen:

Ama, kontuak aldatu ein diez. Ez naz gehiagotan zer topau biher doten galdetzen ibiliko, topetan dotenagaz zer eingo doten baino. Ondino ez dot pentsau zein egunetan bueltauko nazen. Halan da be, ez kezkatu. Badakit nondik natorren, eta seguru nau... nor nazen ikasten nabilelako.

*Mosu bat.
Akira*

Eta beste bat prestatu zuen unibertsitateko tutorearentzat:

*Irakasle agurgarri hori:
Lana ez da hasieran aurkeztu nizun bezalakoa izango. Bide alternatiboa hartu dut: Xamanismoaren barruan, genealogia eta sinbolismo artistikoa jorratzen ari naiz. Himikoren irudia ez da soilik historikoa, bizimodua ere bada.
Jakinaren gainean edukiko zaitut. Eta, egiterik bazenu, itzultzean irakasgaiak hitz egingo dugu berriro.*

Akira

Gerora, tenpluko horma baten atzean, Akirak ezkutuko oholtza aurkitu zuen, non beiraz estalitako idazki zahar batean Kumano izena agertzen zen, eta halako esaldia zuen izkiriatura:

Han dago oraindik, hizki sakabanatuen artean.

Kumano Wakayama prefekturako santutegi sakratuen gunea zen. Izan ere, Chiyokoren tenpluek eta hango lekuek konexioa izan zezaketen, eta Akirak bazekien hurrengo egunean inguru hartara joan behar zuela. Harako bidea luzea zen, ordea, hartu beharreko nekeak ez zion beldurtzen.

Eta une hartan, beste bide batetik, gizonezko gaztea gerturatu zitzaion. Ez zuen soinean jantzi turistikorik, ez eta mendizale arruntaren itxura emango zion arroparik. Lepoan zorroa zeraman, eta eskuetan ilargia eta begia zizelkatuta zituen egurrezko egitura txikia.

Gazteak Akirari so egin eta, irribarre zabal batez, ondorengo argitu zion:

—Zeurea bezala, neure historia ere hemen hasi zen. Eta uste dut geure bideak gurutzatu egiten direla.

Akirak ez zion ezer ihardetsi. Burua makurtu eta eserita zegoen harriaren gainean lekua egokitu zion. Horrela, geroago, isiltasun luzearen ondoren, begiak zerura begira jarri zituen zera esateko:

Bideak ez dira sekula bakartiak. Batzuetan, hizkuntzarik gabe hitz egiten dugu, eta, besteetan, izenik gabe jakiten dugu nor garen.

Gizonezkoak burua makurtu, Akiraren ondoan harriaren gainean jesarri, eta egurrezko objektua hatzen jolasean biraka ipini zuen. Ematen zuen ez zuela hitz egiteko inolako presarik, ezta azalpenak emateko ere. Une batez, biak geratu ziren isilik, mendiko haizeak belarra hasten denean egiten duen soinua aditu zuten arte, bestalde, neguaren ateetan egonda, zaila sasoi hartan halakorik ematea, alabaina orduko aireak horixe zen helarazi ziena.

—Ez dizut izenik esango, oraindik ez behintzat, —esan zion gazteak azkenean—. Hobe da lehenengo isiltasuna entzutea.

Akirak ez zuen beldurrik sentitzen. Aitzitik, giroan lasaitasun berezia zegoen, gizon haren presentzia ez zela mehatxua iradokitzen zuena. Haren begiradak zerbait ezaguna zuen, hala ere, ez zuen inoiz halakorik ikusi, akaso, ametsen batean izango ez bazen.

—Ilargia eta begia, —esan zion Akirak, gazteak erietan biraka zuen egurrezko objektuari begira segitzen zuela—. Zer da?

Gizonezkoak irribarre arina eskaini zion. —Hemen hasi zen dena. Eta hemen amaitzen denean, berriz ere hementxe hasiko da. Zirkulua da. Ilargiak eta begiak ez dute inoiz denborarik galtzen.

Akira ohartu zen gazteak ez zuela hizketarako ohiko era jarraitzen. Hitz bakoitza metafora bihurtzen zuen, kode bat, eta bere barneko egiaren zatitxo bat ere bai.

—Kumanora zoaz, —esan zion gizonezkoak galdera itxura egin gabe, baieztapena izango bazen erara-edo, aditza izenaren ondoren esan bazuen ere—. Handik zuk oraindik ez dakizun zerbaitek deitzen zaitu, eta ez zara bakarra.

Akirak ez zion ezer erantzun, ordea, bazekien, bai, bai, horrela zen. Egunotan bere baitan sena erretu zitzaion. Kumanora joatea ez zen hautu akademikoa. Handik zerbaitek edo norbaitek deitzen zion.

Gizonezkoak poltsatik arroz paper txikia atera eta Akirari luzatu zion. Ez zen mapa bat ez eta idazki arrunta. Ikur batzuk zeuden, biribilak eta kurbatuak, marrak eta puntuak, ilargiaren aldiak eta tximistaren ikurra. Eta behealdean, tinta beltzez, ondorengoa zegoen izkiriatura:

Ez ahaztu: Bidea ez da zeurea bakarrik.

Akirak arroz papera eskuetan hartu eta hatzekin marraztutako ikurrak laztandu zituen. Batzuk ezagunak egiten zitzaizkion: Ilargiaren aldiak, lau puntu kardinalen markak, eta beste batzuk nolabait arrotzak, alabaina amets batean ikusi izan balitu bezalakoak hautematen zituen.

—Zer da hori? Zer esan nahi du?

Gazteak ez zion zuzenean erantzun. Haize-boladaren eraginez adaburuak ezker-eskuin okertzen hasi ziren, herri bandako zuzendariak agindu izan balie bezala, eta, ia aldibereketasunean, hostoen artetik txori ezezagun baten txio leuna ailegatu zitzaien.

—Gauza batzuk ezin dira hitzez azaldu. Ikusi egin behar dira. Eta horietako batzuk, sentitu. Sinboloak ez dira mapa bat, desenkusak dira, norberaren galderak aktibatzekeo aitzakiak. Eta zeureak... aspaldi piztuta daude.

Akirak une batez begiak itxi egin zituen. Ez zuen ohiko ezezagun batekin era hartan hitz egitea, ordea, gazte haren ahotsa ez zen ezezagun baten mintzoa, barruan zerbait astintzen duen norbaitena baino.

—Nork bidali zaitu? —Galdetu zion, burua zertxobait alde batera okertuz.

Gazteak berriro antzerako irriño sotila luzatu zion, alabaina ematen zuen ordukoan pitin tristea zela, antigoalekoaren modukoa-edo.

—Ez nau inork bidali. Ni ere hemendik nenbilen, zain. Batzuek ustekabeen gurutzatzen dute bidea eta beste batzuek... itxaroten egiten dugu. Nik banekien norbait bazetorrela. Eta orain, gu biok gaude hemen.

Akirak hasperen sakona barneratu zuen. Hitz bakoitzak geruza berri bat idekitzen zion, eta gero eta gehiago sentitzen zuen inguruko errealitatea ez zela ohikoa. Ematen zuen denak zuela beste zentzu bat. Toki hura, tenpluko harriak, arroz orria, eta gizonezko gaztea.

—Himiko... ez da izen bat bakarrik, ezta?

Gizonezkoak burua mugitu eta egurrezko objektua berriro jarri zuen biraka.

—Himiko ez da izen bat. Ez da pertsona bat. Ez da iragan hutsa. Batzuek uste dute erregina izan zela, beste batzuek xamana. Nik uste dut zerbait gehiago dela, norberaren barnean dagoena. Eta batzuetan...ba, horixe, piztu egiten dela.

—Eta piztu da? —Galdegin zion Akirak, bere ahotsa apur bat hauskor jalgi zitzaiola.

Gizonezkoak zuzenean begiratu zion, eta, orduan, Akirak haren begietan malko baten muga ikusi zuen.

—Bai. Zeure barruan piztu da. Horrexegatik nago hemen.

Beste haize bolada fin batek emeki astindu zituen arroz paperaren ertzak, Akirari hatzekin estuago oratzera kinatuz.

—Kumanora noa, baina ez dakit zeren bila noan.

—Zerbait bilatzeko galdera bat izan behar duzu. Eta zu, Akira Takeda Mendibe, galdera baino gehiago zara. Zu... giltza zara.

Akiraren bihotza taupadaka hasi zen, eta, finean, halako sentipen batekin ohartu zen. Ez zuen jakin nahi gaztea nor zen. Oraindik ez. Oraindik ez zen unea.

Gizonezko gazteak zorroa jaiki, egurrezko objektua barruan gorde, eta azken begirada batez Akira agurtu zuen.

—Bidean berriro ikusiko dugu elkar, edo akaso ez, auskalo. Baina egon ziur, orain zaren hori, orain arte ez zara izan.

Eta mendian gora abiatu zen, oinatzik utzi gabe, ordea airean lorratzaren antzerakoa geratu zen, apenaz *“ikusi ez ikusi”* bestekoa.

Akira harriaren gainean eserita geratu zen, arroz papera hatzekin eutsita zuela. Eta isiltasunean bihotzak galdera berri bat egin zion:

Eta ni, bene-benetan, nor naiz?

Gizonezko gaztea desagertu bezain laster, airea berehala bueltatu zen baretzera, uluka baina. Akiraren inguruan ematen zuen zuhaitzen hostoek hizketan jarraitzen zutela, eta harrien artetik antigoaleko murmurioa aditzen zen oraino: Mundua zerbait esaten ari zen, alabaina ez hizkiak erabiliz, ezta hizkuntza maneiatur, ez behintzat ohiko eran.

Arroz papera esku artean biribilduta, ingurua behatzeko Akira zutitu egin zen. Makalen artetik barneratzen zela, antzinako bide zaharra begiz sumatu zuen. Ez zen mapetan agertzen, ezta gida turistikoek gomendatzen. Hala ere, barru-barrutik bazekien hura zela hartu beharreko bidea. Ez zen helmugara eramango zuelako, barnera bideratuko zuelako baino.

Ostatura arratsaldez bueltatu zen, eta hango andrazkoarekin iluntzeko tea edan zuen. Ez zen Nakamura, beste emakume isilagoa zen, zerbait gehiago zekiela ematen zuena. Eta logelara igotzean, gizonezko gazte hari buruzko pasarte eguneroko kaieran idazten hasi zen:

Ez du izenik eman, ez eta jatorririk. Baina erantzunaren beldurrik gabe, nire galdera nagusiei begiratu die. Badira halako izakiak, norberaren aurretik etorri, eta, hantxe, presarik gabe, noiz agertuko zain egoten direnak.

Gaua luze joan zen. Amets egin zuen: Mendia, ilargi osoa, eta emakumea jantzi beltzarekin, ahuspez jarrita zegoen menhir itxurako harri baten gainean eserita. Ezer esan gabe egonean zegoen, alabaina, begietara so egin zion. Eta eskuetan... egurrezko begi bat zuen.

Goizean goiz, eguzkia oraindino laino artean zegoela, Akira jaiki egin zen. Kumanorako bidaia prestatzen hasi zen: Tren-geltokiak eta ordutegiak aztertu zituen, prefektura arteko garraio-konbinazioak, Wakayama inguruko santutegi nagusiak. Halaber, ardatz berria finkatzeko asmoz, bere TFGko oinarritzko dokumentuak eguneratzen hasi zen:

Lanaren izenburua:

Himiko eta sinbolismoaren genealogia: Japoniako xamanismoaren irudiaren aztarnak artean eta oroimenean.

Helburua:

Durango eta Kioto arteko begirada gurutzatutik, genealogia pertsonalaren eta arte-testigantzen bidez, Xamanismoaren transmisio kulturalaren aztarnak bilatzea.

Eguneraketa oraindik ez zion bere tutoreari bidali, ordea, barrutik bazekien egitasmoa ez zela gehiago ikerketa soil bat izango. Zalantzarik gabe, beraren historia bihurtzen ari zen.

Eta irteeraren bezperan, ospitaleko kafetegi batean ikasitako ohitura bati eutsi zion. Ama telefonoz deitu zuen, ahotsa ahapeka, baina sendo jarrita. Ez zen luze mintzatu.

—Kurama ez da helmuga bakarra, —esan zion Akirak—. Kumanora noie. Bide luzetxue da, baina... beharrezkue jata eitie. —Isilunea egin zen. Amaren arnasa entzun zuen, eta hitz gutxi batzuk—. Aurrera eiten badozu... zeurie dalako da.

Bidean galdu eta berriro aurkitu

Kumanorako goizak isiltasun berezia zekarren. Laino zurixka meheak ingurua blaitzen zuen, inor begiestea oztopatzearen erara, eta adoretzen zuen haize leunak zuhaitzen hostoak doi-doi laztantzen zituen, azken mezuren bat xuxurlatuko balie bezala.

Akirak ostatuko gela utzi eta lekora ilki aurretik, ate ondoan zapatilak estu lotu zituen, hango harri haiek laster bere oinek ez baitzituzten gehiagotan ferekatuko; ustez behintzat horretan zegoen. Ate zaharra ixtean egurrezko karraskak hotsa utzi zuen gibelean, ordea ez zen arratsaldeetan bueltatzen zenekoetan ateratzen zuen soinua. *“Orain alde egitera noa, eta badakizu? Ez dut bueltatzeko datarik”*. Horixe pentsatuz jalgi zen, eta sentimenduzko hasperen batean, musua utzi zuen aterpea egitera zegoen egurrezko zutabea.

Tren geltokirako bidea harrizko galtzadan gora egiten zen. Aitzinean, lainopeko ingurua zegoen zabalduta: Muino leunak, zuhaitzen artean galtzen ziren bide bihurrituak, eta oihanetik zetorren ur jauzi xumearen soinua beraren hegalean egongo bazen antzera entzuten zuen.

Treanean, leihoaren ondoko eserlekuan jesarrita, begien aurretik paisaia azkar igarotzen zen, alabaina, Akiraren barnean dena zihoan geldo. Bazirudien bagoi bakoitzak, eta geltokiek ere, euren bizitza zutela. Ziur beste istorio bat idazteko bestekoa. Ziur interesgarria zitekeen beste norbaitekin topo egiteko. Ziur beste hainbat bizipen liluragarri kontakizun bihurtzeko.

Batzuetan trena tunel ilunetan sartzen zenean, den-dena argi itzaltsuan geratzen zen. Orduan, leihoan bere burua islatuta ikusten zuen. Ez zen Japoniara heldu aurretik zuen begirada bera. Ez zen Durangora mezua bidali zuenaren begitarte, ez zen Maialen Altuberekin egon zeneko bisaia hura, ez zen Ana Elenarekin kafea edaten egon zenekoarena.

Oroimenera, behin eta berriz, galdera bera itzultzen zitzaion:
“Bidaia nola zehaztu daiteke norabide bat baino gehiago dagoenean?”

Motxilan eguneroko kaiera zeraman, alabaina ez zuen ideki. Ez zuen izkiriatzeko gogo handirik. Ordura arte jasotakoa gorputzean gorde behar zuen, ez idatzizko testua bihurtu; oraindik ez.

Saiatu zen begiak itxita kuluxkatxoa egiten, ordea trenaren triki-trakak ez zion halako ametsarako baimenik eman. Eta erantzun lez, Akirak ez zuen galderarik egin. Soilik leihoaren beste aldera behatu, eta jabetu zen bere barnean isiltasun berri bat pizten ari zitzaiola.

Wakayama prefekturaren barrenetik, trenak geltoki txiki batean egin zuen geldialdia. Leku hura ez zen turistikoa. Geraleku zahar bat zen, bi nasa higatu eta metalezko banku bat itzalpean zituenekoa, ez besterik. Han, zapi batez burua estalita, eta aurpegi zimeldua zuen andrazko atsoa eserita begiesten zen, aitzinera so eginez, inora begira, leituta egongo bazen antzera, egonean, eta hegalean paperezko poltsa. Ez zen mugitzen, hala ere, Akira behatzeko begirada okertu zuen.

Akirak ez zuen trenetik jaisteko asmorik, ordea, berak ere ez zekiela zergatik, jaiki egin zen lekora jalgiteko. Eskuetan botilatxo batean ura zeraman eta ingurura begira segundo batzuk eman zituen. Ez zen beste inor jaitsi. Ingurumenean ez zen inolako kartelik zehazki non zeuden jakiteko.

Bisaia zimela zuen atsoak irribarre ezitia luzatu zion.

—Ez zara galdu neskato, bakar-bakarrik, ba... oraindik ez dakizula non zauden. —iritzi zion japoniera gozoan.

Akira hurbildu egin zitzaion, eta ia aldi berean, atsoak poltsatik paper bat atera zuen. Gero, jarlekutik jaiki, eta begirada ilun baina lasaiaz, esku artean oratuta zuena luzatu zion.

—Ez ideki orain, ez irakurri orain, eta ez galdu ezer. —Manatu zion.

Akirak poliki hartu zuen papera. Handik gerora emakumeak ez zuen beste ezer esan. Aurrera egin eta han zegoen zurezko atari bakarretik barneratu zen.

Akira isilik bueltatu zen trenera, eta, ordura arteko eserleku berean jesarrita, paperari so geratu zen. Azalean ez zitzaion izenik ikusten, ez eta datarik. Soilik ikur bat zeukan marraztuta: Ilargi erdia eta haren gainean hiru puntu.

Ezin izan zuen azaldu nolatan, ordea papera motxilan sartu eta itxi egin zuen. Ez zekien zergatik zen garrantzitsua, hala ere bazekien ardura handikoa zela.

Eta trena berriz abiatu zenean, bihotzaren barrualdetik hitzak heldu zitzaizkion: *"Ateak ez dira beti idekitzen. Batzuetan... norbera da atea."*

Trena arratsaldeko azken orduetan ailegatu zen Kumanora. Eguzkia oraindik ez zen erabat gorde, alabaina basoen artetik irrist egiten zuen argitasuna tonu urrezatuan bilduta zebilen, dena goxatzen duen distira lauso batek bezala. Akira nasara jaitsi zenean, nabarmendu zitzaion lehenengo gauza airearen lurrina izan zen, lurraren, egurraren, eta iraganaren usaina, alegia.

Ez zen hiria, ez eta herria ere. Kumanon dena zegoen sakabanatuta: Tenpluak, harrizko eskailerak, urmaelak, basoaren bihotzean galdutako orubeak... Eta, dena, hari ikusezin batez bata besteari lotuta zegoen, isiltasunaz estekatuta bezala.

Halako informazio harrera-lekuan, eskuz egindakoa zela ematen zuen inguruko planoa eskuratu zuen. Tinta beltzez margotutako tenpluen kokapenak, eta kolore gorriz nabarmenduta, "Kumano Sanzan" izenez ezagutzen diren hiru santutegi nagusiak argi-argi behatzen ziren, hirurak Kumano Kodo deitzen zen bide nagusi batek eratxikita.

Akira oinez abiatu zen lehenengo tenplurantz zihoan bidea egiteko. Gainera sugi erraldoiak, alegia japoniar zedroak behatzen ziren, eta zorutik harrizko eskailera hezeak. Joanean egurrezko kartel zahar batean idatzita zeuden hizkiak irakurri zituen:

"Ez erratu bidea. Eta kamioa okertuz gero, ez galdu barruko argia."

Une batez, oroimenera amamaren ahotsa heldu zitzaion, ez hitzez, bizitzaz beterik baino, argazki zahar batean ikusi zuen bezala, begirada urrunera jarrita, giblean basoa eta eskuetan zerbait oratzen. Amamari buruz ez zuen sekula galderarik egin, orain, ordea, galdera bakoitza barnean oihua bilakatzen zitzaion.

Tenplurako lehen ataria zeharkatu zuenean, urratsa moteltzen hasi zitzaion, eta gorputza artezago jartzen. Ez zen erlijiozko gurtza modura gerturatzen ari, baina bai errespetuz. Harrien artetik lurrin berezia ezagutu zuen: Sutondo zaharretan egoten ohi den elorriaren usain garratza. Aipatu urrinak

zerbait piztu zion sabelean. Handik, bertatik, bere aurretik igaro izan balitz bezala, baina... beste bizitza batean.

Orduan, ilunabarrean, tenpluko egur zabalaren oinean eseri zen. Ez zegoen beste bisitaririk. Eskua motxilan sartu, eta aurreko tren geltokiko aurpegi zimel atsoak emandako papera hatzekin heldu zuen. Oraindik ez zuen ideki.

—*Hemen nago, Himiko*, —xuxurlatu zuen—. *Eta oraindik ez dakit zergatik.*

Begiak itxi zituen, eta, isiltasun hartan, ez zuen ez beldurrik, ez zalantzarik. Beste barik... egonean geratu zen.

Tenpluko zoru heze eta leunak ez zuen erosotasunik eskaintzen, hala ere Akira ez zebilen horren gurarietan. Egun osoa batetik bestera gelditu gabe ibili ostean, hankak luzatu eta motxila burupean jartzearekin nahikoa izan zuen. Gauak ez zuen haizerik ekarri, alabaina, basoak berezko arnasa zuen. Ematen zuen zuhaitzen adaburuetakoko hostoek elkarren artean hitz egiten zutela, eta inguruan ez zen jada egun-argirik geratzen, ilargiaren distira isila ez bazen.

Ez zekien noiz itzali zitzaion kontzientzia, laster geratu baitzen lotan. Supituan, besterik gabe, leku ezezagun batera irristatu zen, nolabait, beste behin, astroen bidaia egitera bezala-edo. Eta hangoa beste mundu bat zen.

Ametsa ez zuen hasieratik argitasunez gomutatzen. Hastapenean urrutitik zetorren soinu antzerakoa entzuten zela oroitzen zuen, kanpai baten azantza bezalakoa-edo, eta gero emakumezkoen ahots baxuak erritmo jakin batean zerbait esaten ari zirela, ezen ez baitzuen ezer ulertu. Hizkuntza ezezaguna egin zitzaion eta, hala ere, ulermenetik haratago, bere barnea zerbaitek astintzen zuen.

Laino artean, eremita ez handiegia behatu zuen. Ez zen egungo tenpluen antzekoa. Egurra beltzez tindatua eta teilatuak ilargiaren forma zuen. Atariko harrizko eskaileraren goiko aldean andrazkoa nabarmentzen zen. Ez zen gaztea, ez eta adindua, eta berak zuen jasa ez zen edertasun klasikoaren antzekoa, ordea, begitartean aurreko belaunaldien milaka begirada biltzen zituela ematen zuen. Ez zuen hitzik egiten, soilik eskua jaiki eta Akirari so egin zion.

Akirak aurrera egin zuen, hala ere pauso bakoitzean zorua oinetan desegiten zitzaion, eta emakumearengana iristeko ezin izaten zuen urratsik eman. Orduan, andrazkoaren ondoan beste ingerada bat agertu zen, emakumea bera bezain isila zena, ordea, oraingoak atzean zilarrezko ilargia zuen. Silueta hark ez zuen aurpegirik, alabaina haren inguruan argia mugitzen zen, eta argitasun haren barruan Himikoren izena idatzita begietsi zuen, baina ez hizkiz ikurraz baino.

Halako batean, andrazkoak berba egin zion. Ahotsak ez zuen aho kordetatik irtendako soinua, alabaina, garunean bai entzun zuela:

“Ez zatoz zerbait ikastera. Zerbait uztera zatoz”.

Eta Akira dardarka jarri zen. Gibelean geratutako zerbait... ezabatu nahi zuen. Inoiz aipatu ez zuen eta gordeta zeukan zerbait zitekeen. Eta orain, emakume hark *“Himiko? Bere amama? Bere amaren irudia? Berak berari?”* ezagutzera ematen zion:

“Egia ez da aurkitzen. Egia... utzi egiten da”.

Une hartan, eguzkiaren izpi galduak, hodei beltzen zirrikituetatik trebesatu zirenak leihoko kristaletik sartu eta Akiraren begietara iritsi ziren. Izerditan bezala, arnasestuka eta bihotza kolpeka zuela itzartu zen. Alabaina, bere aitzinean, idekita zuen motxilan, aurpegi zimeldua zueneko emakume adinduak emandako papera erdi aterata ikusten zen, zuri-beltz eta dardarizo batean.

Zabaldu zuen. Eta han, ikurren artean, ondorengo idazkia zegoen izkiriatura:

“Isiltasunak ilargiaren aldi guztietan dauka bere lekua”.

Eta, orduan, Akirak ulertu zuen oraindik ez zela galderak egiteko unea, jada isiltasuna hitz egiten hasita baitzegoen.

Ilargipean

Egunsentiak ez zuen inolako zaratotsik ekoitzi, eta argitasun arina lainobera artetik iragazita bezala barneratzen zen, eremitaren oholezko zoruaren gainean pausatzeko, non Akiraren begiak eskuztatu zituen eraikinaren barruraino hedatu aurretik. Ez zuen ohiko iratzartzea izan, eta ametsaren astindua gorputzean ekuratuta zuen, arnasa geratzen den moduan-edo.

Oraindik lo egin zuen toki berean zegoen eserita. Ez zuen ezer mugitu, ez eguneroko kaiera, ezta gorputza bera ere; lo penatuan bakar bakarrik motxila mugitu zitzaion arean. Bihotzak bezperako erritmoa zeramakion. Ez zuen uste loarena izan zitekeenik, ezta batzuetan esnatu berri izaten denekoa ere. Beste zerbaitek izan behar zuen, mugaren erritmoa edo halako zeozer izan zitekeelakoaren susmoa hartu zion.

Kaierako paper zurian esaldi bat izkiriatu zuen, ahots oihukariak helarazi ziona izan zitekeena:

“Ez zatoz zerbait ikastera. Zerbait uztera zatoz.”

Izkiriatu irakurri, eta berriz behatu zuen. Zer zen utzi behar zuena? Oraindik zer zeukan barnean, Himikoren bila abiatzeko zama moduan zuena? Eta orduan, beste itaun batzuk iritsi zitzaizkion, geldiezinezkoak balira bezala ailegatu ere:

—Zer uste dut kausituko dudala?

—Nori begira bizi izan naiz, ni neu begiratu gabe, neure burua jagotea ahantzita izango banuen bezala?

—Bene-benetan nondik nator?

Ez zuen erantzunik. Hala ere, galderak eurak ziren nahiko erantzun.

Kaiera itxi, motxila eskuetan jaso eta, orduan, beste behin, plano zaharra zabaldu zuen. Zirriborroz betetako paper kurruskari hark ez zion argibide handirik eskaintzen, alabaina, arin emandako ikusmira batean, ikur batek

deitu zion arreta: Hiru puntu gaineen zitueneko ilargi erdi bat zen, bezperan aurpegi zimeldua zuen atsoak emandako paperean agertzen zen antzerakoa.

Ikurra tenplu txiki baten alboan zegoen marraztuta, Kumano Kodotik zertxobait aldendutako lekuan. Ez zen gida turistikoetan agertzen, eta ez zen aurretiaz nonbait entzundako izena ere. Alabaina, bertan izen bat zegoen tinta beltzez idatzita:

Yatagarasu no Miya
Yatagarasutarren eremita
Hiru erpe dituen belearen tenplua

Akirak ez zuen inoiz deitura hura entzun, ordea, halako izena begiratzearan bere baitan zerbait mugitzen zitzaiola ohartu zen. Belea. Hirutasuna. Ilargia. Eta beste zerbait ere bazen, hots: Mezu baten ataria, alegia.

Motxilan botila bete ur sartu, zapatilak estu-estu lotu, eta basorako bidea hartu zuen. Harrizko eskailerak geroz eta estuagoak ziren, eta mendiko isiltasuna geroz eta sakonagoa. Ez zuen hitzik ahoskatu, ezta abestirik buruan bueltaka ipini. Ordea, bere barnean zerbait ernatu zitzaion:

“Nor bait nire zain dago, edo ni neu nago norbaiten zain.”

Oihana zabaltzen joan zen eta bidea gero eta estuagoa bihurtzen. Harrizko eskaileraren maila zaharrak aldapa artezetik gora igotzen ziren, urrunean galdu arte. Haizeak leun jotzen zuen, alabaina zuhaitzen artetik zerbait mugitzen zela aditzen zen. Itxuraz ez zen animalia ez eta pertsona ere.

Akirari bihotza hertsatu egin zitzaion, ordea ez zen beldurragatik izan. Gibelera begiratu gabe, barruko gogoak aurrera bultzatzen zuen. Eta orduan, azken eskailera maila igo zuenean, begien aurrean eremita xumea azaldu zitzaion. Egur ilunez egindakoa zen, teilatuan ilargiaren formako kurba zuena, eta sarreraren aldameneko zutabeetan belearen ikurra zizelkatuta behatzen zen.

Atearen parean, gazte bat zegoen eserita, zoruan tinta beltzez sinboloak marrazten. Akira ia bere ondora heldu zen arte ez zen ohartu. Alabaina, bertaratu zitzaionean, gazteak burua jaso eta zuzenean begietara so egin zion. Irribarre txikia ilki zitzaion eta ondorengo esanez agurtu zuen:

—Aspaldi espero zintudan.

Une hartan Akirak ez zuen hitzik aurkitu. Ez zuen uste ezagutzen zuenik. Hala ere, gazte haren begiradak ezagutza helarazten zuen. Ez zen jazotakoaren ezaupidea, ez eta agitu denarena. Beste zerbait zen.

—Nor zara, ba? —Galdetu zion.

Gazteak bere margolanari begiratu zion berriz, eta lasaitasunez ihardetsi zion:

—Ez da garrantzitsua nor naizen jakitea, zu hemen egotearen arrazoibidea ezagutzea baino. Zeure baitan zerbait esnatu da, eta holakoa iratzartzen denean hemen azaltzen da.

Gero, sinboloak erakutsi zizkion. Ilargi erdia eta alboan puntu txiki bat zuen belearen silueta.

—Horrek zer esan nahi du? —Galdetu zion Akirak.

—Begia, —ihardetsi zion gazteak—. Ez guk ikusten duguna, ikusten gaituen horrena baino.

Eta orduan, elizaren sarrerako itzaletik, andrazko heldua azaldu zen. Ez zuen ezer esan. Erratza eskuetan zeraman, eta oinak astiro-astiro mugitzen zituen, ez traba egiteko beldurrez, beti toki egokian egoteko baino. Ez zen ohiko zerbitzaria, ezta bisitaria ere. Bere presentzia... egiaren lekukoa izatearena zela iradokitzen zuen.

Haren aurrean gazteak burua makurtu, eta andrazkoak zuzenean jo zuen Akirarengana. Ez zion agurrik egin, ezta irribarrerik ere, luzaroan soilik begirada leuna eskaini zion. Eta orduan, esaldi bakarra ahoskatu zuen:

—*Ez zara bila datorrena, baina zeure barnean zerbait... itzuli egin da.*

Akirak ez zekien zer esan. Eskuetan arroz orria oratu zuen.

Keinu sotil batez emakumeak baselizako egurrezko atea ideki zuen, eta, ideki ere, astiro ideki zen, kurrinkarik igorri gabe. Eta kanpotik barruan iluntasun lasaia zegoela antzeman zen. Ez zegoen argirik, ez, ordea, zalantzarik gabe, argia zegoen lekua zen.

Eta Akira ohartu zen, zerbait jazotzera zihoala. Ez zen ezer aurkituko. Ez zen ezer galdetuko. Zerbait agitzera zihoan.

Atea emeki ideki zen ezein hotsik idoki gabe, eta Akirak aurrenik lurrin bereziak sumatu zituen: Egur zaharrarena, apaletan gordetako arroz paperena, eta sutzarraren ke usain leuna ere bai. Barneratu zenean, baselizak ez zuen argirik, hala ere, han begiesten zuena ez zen ilunpe hertsia; egurrak berak isuriko balu bezalako argitasun mehe eta urdinxka zen.

Zoruairen gainetik ibilian joan zen, oin puntetan ia, keinu bakoitzari eta arnasgorari anitz arreta eskainiz. Inguruan mural zaharra begiesten zen, alegia tinta ilunaz marraztutako horma-irudia: Goian ilargia, behean ura eta erdian pertsonaia berezia zegoen, eta haren inguruan animaliak.

Alderik urrunenean aldare xumea behatzen zen. Alboetan zituen kandelak itzalita zeuden, eta han ez zen ikusten ohiko irudirik. Soilik lau alde zituen arra beteko harria, eta, haren gainean, zilarrez edo zeramika zuri distiratsuaz egindako ilargi jaseko pieza. Eta albo batean... kristalez estalitako idazki zaharra txukun zegoen ipinita.

Akira hurbildu zenean, gorputzean dardara arina sentitu zuen. Ez zen hotzagatik izan, ez eta beldurragatik. Sumatzen zuen bere gorputza kanpoko zerbaiti erantzuna ematen ari zela, edo barrutik kanpora zabaltzen ari zelako ere izan zitekeela.

Supituan, ez zuen argirik ikusi, ez hormetan, ez eta altzarietan, ezta inon; soilik leihotik heltzen zitzaion ilargiaren distira zuri-urdinxka, eta inguruan behatzen zuen argi-hodei mehea. Eta handik, aldarearen bazterrik ezkutuenetik, berriz ere andrazkoa agertu zitzaion.

Ezin izan zuen ikuskatuaren aurpegia xehetasunez bereizi, ordea ez zen bezperako ametsean irudikatuaren antzerakoa. Hala ere, ziurtasunez ezin zuen esan erabat ezberdina zenik. Andrea zutik zegoen, ezker eskua jasota, hatz erakuslea zerura begira, eta bestea uraren gainean zabalik zuena. Eta orduan Akirak bihotzean entzun zuen ahotsik gabeko esaldia:

“Isiltasunaren bidez jakiten dena ez da sekula ahazten.”

Eta ia aldi berean, film baten antzera, bere garunean ondorengoa irudikatzen hasi zen: Ama, gazte-gazte, haurdun, eskuan telefonoa zuela mendiaren barrenetik norbaiti deitzen, ordea, ez zuen hitzik ahoskatzen. Eta gibelean, amama, bere aitaren ama, isilik, zerbait idazten zegoen. Hala ere, ez zuen begiratzen, Akirari zuzenean idazten bazegoen bezala behatzen zitzaion, Akira oraindik amaren sabelean bazegoen ere.

Zurumurrua aditu zuen gero, uraren soinua bezalakoa izan zitekeena, ordea ez zen ura. Eta orduan, lauki itxurako harrizko harriaren gainetik argi printza bezalakoa igo zen. Baina izpia ez zen piztu, Akira bera zelako. Eta jarraian, ilargia airean barreiatuz desegin zen eta haren lekuan... begi distiratsu eta gardena ikusten zen, eta begiak ez zuen ezer epaitzen, begiak soilik behatu egiten zuen.

Eta Akirak sentitu zuen begiratu zela, baina ez bakarrik orduan, bizitzaren eta arbasoen artean baino. Eta erabat hunkiturik, begi txokoetatik malkoak isilik ilki zitzaizkion masailetatik behera.

Airean argia desegin eta barruan isiltasun sendoa geratu zen. Akirak hasperen sakona egin zuen, bizi izan zuena ezin baitzuen erabat entelegatu, hala ere, ez zuen sentitzen aditu behar zuenik. Zerbait barnean mugitu zitzaion eta hori zen berarentzat garrantzitsuena.

Urratsa atzera egin zuen, harrizko harriaren aurretik aldarearen gibelera, eta orduan jabetu zen ez zegoela bakarrik. Mutil gaztea baselizako ateetan zegoen zutik, eta, haren ondoan, begirada samur, andrazko adindua isilik. Berehalakoan ez zuten ezer esan. Patxadaz hartu zuten, Akirak zer egingo zuen ikusteko-edo.

Segundo batzuk igaro ondoren, Akirak zurumurru baten eran ondorengoa itaundu zien:

—Zer izan da gertatu dena?

Gazteak ez zion berehalakoan ihardetsi. Aldareari so geratu zen, eta, gero, Akirarengana bueltatuz zera iharduki zion:

—Zeure barnean eduki duzunak espazioa eskatzen zuen, eta gune hori... hemen, eremita honetan ideki zaizu. Dena ez da ikusten, baina posible da guztia sentitzea.

Akirak begiak jaitsi zituen, ezen oraindik emozioaren oihartzunean baitzituen. Urrats mantsoz, andrazko heldua neskarengana hurbildu eta eskuetan zuen paperezko orria eman zion. Ez zen arroz paper zaharra, berriki idatzia zirudien orria baino. Bertan, letra beltz gurian lerro bakarra zegoen izkiriata:

“Ez eraman bizkarrean galderarik, bide bihur daitezen jar itzazu oinetan.”

—Galdera batekin etorri zara, —esan zion andrazkoak, lehen aldiz hizkiei ahots lasaia jartzen ziela—. Hemen badakizu ez dizugula erantzunik emango, baina bai bide bat eskainiko. Eta, jakina da, bidea... galdera bera dela.

Akira paperean idatzita zegoenari luzaroan egon zen begira. Guzti hark zer esan nahi zuen? Hala ere, zergatik sentitzen zuen guzti hura erabat zentzuzkoa zela?

Orduan, mutil gazteak itauna egin zion:

—Himiko zure barruan bizi da... ala norbaiten bidez iritsi zaizu?

Galderak harrapatu egin zuen. Ez zekien erantzuna. Eta, hain zuzen ere, hantxe bertan zegoen egia.

—Ez dakit. —Ihardetsi zion Akirak—. Baina badakit hemen nagoela, eta gauza bat esango dizut, ez nauela historia batek ekarri, oihartzun batek baino. Zerbaitek agintzen zidan honaino heldu behar nuela, eta ez dut argi zerk.

Andrazko helduari lehen aldiz antzeman zitzaion irribarre arina agertzen zuela.

—Oihartzuna ez da beti ahots bat. Batzuetan... odola da.

Basoko tenplu txikiaren barnean ez zen beste ezer esan. Hirurak isilik geratu ziren, egurrezko zoruan ilargiaren argirik gabe, alabaina, bai argitasunez inguratuta. Eta Akirak orduan gauza berezia sentitu zuen: Isiltasuna ez zela hutsunea adostasuna baino.

Orri zuria

Eguzkia gorantz zetorren artean, basoak ez zuen bere misterioa galdu. Haize leunak zuhaitzetan geratzen ziren hostoak emeki astintzen zituen eta, berriz gizatiar mundura bueltatzeko, ate itxurako egurrezko pasabidearen azpitik igarotzean, torii-aren bitartetik alegia, Akirak azken aldiz osterara begiratu, eta ilargiaren itzalpeko hiru erpeko belearen ikurra behatu zuen, izan ere, Yatararasutarrena. Ingurua ez zen toki hutsa, eta berarentzat zerbait utzi eta zerbait hartu zuen lekua bihurtuta geratu zen.

Urratsak emanez presarik gabe zihoan, oraindik ez baitzekien hurrengo geldialdia non egingo zuen. Besterik gabe, oinkada bakoitza neurtuz, behera egin zuen. Bere baitan zirrara berezia sentitzen zuen. Ez zen erabateko poza, ezta tristura ere, nolabaiteko betetasun lasaia baino.

Ostatura bueltatu zenean, gela hartu zuen berriz. Tatamiaren karraska etxeko doinu familiarra bezala jaso zuen, eta arnasa baretzeko egin zuen lehen gauza ur epela edatea izan zen. Gero, motxilatik eguneroko kaiera atera zuen. Lerrodun orriak zuri-zuri zeuden, eta haiek begira luze joan zitzaion denbora.

“Orri zuria ez da hutsik egotearen seinalea. Batzuetan, betetasunaren ataria izaten da”, supituan heldu zitzaion.

Arkatza hartu eta ezin izan zuen izenbururik izkiriatu, data bat bera ere ez, ez eta kokalekurik, soilik lerro bakarra jalgi zitzaion:

“Isiltasuna ez da amaiera, hasiera baino, hitzek lekua utzi behar dutenean datorrena.”

Hasperen egin zuen. Hiru segundo baino ez ziren izan, eta bere estilo propioan jarraitu zuen izkiriartzen, baina ordukoan lehen aldiz izan zen bere baitatik sortutakoa, ez zen izan ez dakit non entzundakotik ateratakoa, ez eta bibliografiaren itzaletik eratorria. Eta hitzak heldu zitzaizkion, baina ez logikatik erritmotik baino:

*“Himikoren iduria ez dago irudietan. Ez dago egurretan zizelkatuta, ezta tenpluen barneko hormetan marraztuta. Bizi den tokia begirada baten barnean dago, isilik geratzen denean, hor ere bai.
Ez dut interpretatu nahi. Ez dut azaldu nahi.
Entzutea da nahi dudana, eta entzute horretan neure ahotsa aurkitu.
Himiko ez da iraganeko izakia. Himiko
bide bihurtu zaidan galdera bat da.”*

Zoruan eserita, koadernoan belaunen gainean oratuta, une batez Akirak begiak itxi zituen. Hitz haiek ez ziren soilik lana, TFG-a, barruan zerbait askatzen zebilkion, eta horrexegatik paperak ez zuen pisurik, hitzek bai.

Eguneroko kaiera itxi aurretik, gogoeta bat idatzi zuen alboan:

“Zientzia ez da beti froga bat. Lantzean behin, presentzia izaten da. Eta horrelakoetan, batzuetan behintzat, egia entzutearen prestutasunean datza.”

Gero, ordenagailua ireki zuen. Sare-konexioa motel zebilen, hala ere, bazebilen. Tutorearentzako mezu berri bat zirriborratzen hasi zen. Ez zuen zuzen hasi nahi, ez eta “kaixo” soil batekin, ez eta “arazoak izan ditut” esanez.

Beste modu batez hasi zen:

TFG-aren norabide berri baten inguruan

Irakasle agurgarri hori:

Bide bat hartu nuen, hala ere, bideak berak sarritan ez daki nora doan. Hasieran xamanismoaren azterketa historikoa zen nire asmoa, ordea ez zidan ate askorik ireki. Eta, egia esan, ez zen benetako galderatik abiatzen.

Egun hauetan Japonian izan naiz, eta, hemen, ezen oraindik hemen bainago, zerbait gertatu zait. Ez dut soilik informazioaren bilketa egin. Hitzik ahoskatu gabe entzuten ikasten nabil. Eta jakina, horren ondorioz nire lana guztiz aldatu dut.

Izenburua ere eraldatu diot: “Isiltasunaren lerro artean Himikoren irudia eta oihartzuna”. Lana ez dago amaitua, oraintxe hasi berri baitut.

Zalantzak ditut, bai, zelan ez. Baina, uste dut ausarta izan naizela, eta galdera bati ez diot erantzunik eman.

Espero dut ulertuko nauzula.

Esker onez.

Akira Takeda Mendibe

Azaroaren egun hartan, egunsentia isilik eta nolabaiteko eztitasunez iritsi zen ostaturaino. Gela txikiaren barnean, Akiraren pauso arinak egurrezko zorua pixkatxo bat zartatzen zuen, eta te beroaren lurruna leihoan galtzen zen, beroaren eraginez lainoa desagertzen den antzera. Ez zuen zertan egun berezia izan behar, alabaina izango zen.

Mugikorra piztu zuen, eta hango sare konexioa ahula bazen ere, nahikoa zen erabilera ez eragozteko. Orduan jabetu zen dagoeneko tutorearen mezua heldua zitzaiola; ikonoa begira geratu zen; ez zuen distirarik egiten, eta uste izan zuen argiaren kontua izan zitekeela. Hala ere nabaritzen zuen bazuela bere pisua.

Hasperen luzea egin eta ermamiaz sakatu zuen.

Gaia: Zure mezua eta lanaren norabide berria

Kaixo, Akira.

Zure mezua isiltasun nabarmenean irakurri dut.

Ez nago ohituta ikasle batek galdera batekin idazten duen lan-proiektu batera, ordea, agian, horixe da behar duguna: Ikerketa ez dadila beti galderak ixteko bidea izan, irekitzen jarraitzekoa baino.

Ulertzen dut zure lana ez dela hasieran aurkeztu zenidanaren jarraipen zuzena. Eta ulertzen dut, halaber, bidaiatu duzula ez informazioa bilatzera bakarrik, zerbait zeure baitan antzematera baita ere.

Izenburu berria ausarta da. Eta, egia esan, edertasun berezia ere badu. Proiektu horrek ez du zertan izan behar beste lan baten kopia. Bere zentzua izango du baldin eta zuk zeure bidea koherentziaz eta arduraz osatzen baduzu.

Ez izan galderei eusteko beldurrik.

Jarrera akademikoa ez da beti egitura klasikoan neurtzen. Batzuetan, bere baliorik handiena zintzotasunean eta koherentzia emozionalean aurkitzen da.

Jarraitu, mesedez.

Itzultzean, elkarrekin eseri, irakurri, eta eztabaidatuko dugu. Zure lana espero ez nuen bidetik etorri da, eta horrek aukera bat ekarri dit niri neuri ere, ikastea, alegia.

Adeitasunez,
Maialen Altube

Akirak mezu osoa birritan irakurri zuen. Ez zuen poztasun oihukaria sentitu, ez eta arrakastaren sentsazio hutsa ere. Halabaina, gorputzean lasaitasun sakon bat hedatu zitzaion.

Zerbait barneratu zuen: Berak egindako galdera batek tutorearengan ere galdera bat piztu izana. Eta agian, horixe da jakintzaren transmisiorik zintzoena.

Eguneroko kaieraren orri zurian, hizki txikiz ohartxoa idatzi zuen:

“Jakín nahi duenarentzat... entzule on bat behar da beti.”

Gero leihoa ireki zuen. Kanpoan lainoa pixkanaka goratzen ari zen, eta basoaren gainetik eguzkiaren urre koloreko irudi bat azaltzen hasi zen. Une batez, Akirak begiak itxi egin zituen, sortu galdera berrien aurrean hausnarrean jartzeko:

“Hemen oraindik zer geratzen zait? Non amaitzen da bidaia? Edo, izan al du hasierarik?”

Hurrengo egunean, trenez hegoaldera abiatu zen. Wakayama kostaldean, mapa gutxitan agertzen zen herrixka batean hartu zuen ostatu: Shirahama, hiri zuri isila izena zuenean, alegia; hondar finez eta ur gardenaz inguratutako arrantzale herri baketsua.

Ez zuen zehaztasunez inolako plangintzarik egin. Ez zuen gehiago ikertu nahi. Besterik gabe, hara joan behar zuela sentitu zuen. Eta han, hango mendixkaren gailurrean, itsasoari begira, egur beltzez egindako baseliza txikitxoa topatu zuen, inguruan tximeletentzako lorategi xumea zuena.

Egunez, urrunetik herriko hondartzan jolasean zebiltzan haurren algarak entzuten ziren. Ordea, gauez, ilargiak bere lekua betetzen zuen, isiltasunaren erdigunean gonbidatu berezia izango bazen antzera.

Orduko ilargi beteko gau hartan, Akira oinez igo zen tenpluraino. Ez zegoen inor. Ateak idekita zeuden, eta, barruan, ez zegoen irudirik, ez eta muralik ere. Soilik harrizko zoruan margotutako zirkulu zuri bat behatzen zen, eta erdian zetazko kuxina.

Zirkulua ez zen perfektua. Mutur batean marra lausotua zuen, itxuraz nahigabe utzitakoa baina. Ordea, Akira konturatu zen zirkulua ez zegoela idekita ustekabean, halabeharrez baino.

Erdian eseri zen. Arnasa hartu zuen. Eta ez zuen galderarik egin. Ez zuen ezer eskatu. Ez zuen izenik ahoskatu. Besterik gabe, egonean jarri zen, garunak sortzen zizkion irudiak iltzatu gabe joanean utziz.

Une batez, haizeak kanpotik hostoen artean nolabaiteko zirraratxo bat sortu zuen. Eta ilargiaren argiak zoruan marratxo bat utzi zuen, zirkuluaren etenaldian sartuz.

Eta Akirak orduan ulertu zuen bidea ez dela zirkulu itxia. Idekita dagoen tokian beste norbait sar daiteke. Eta agian, horixe da jakintza partekatuaren muina, bakarra ez izatea, alegia.

Ez zuen sinbolo berririk jaso, ezta mezu ezkudurik edo ikusgarririk. Hala ere, bihotzean, isil-isilik esaldi batek forma hartu zion:

“Beti dago norbait zure galderaren beste aldean.”

Itzulera berria

Bidaia ez zuen eguerdiko hamabietako trenean hasi, ezta aireportuko korridore ezezagunean ere. Bidaia bueltan etorri zen, Akirak eguneroko kaieran eskura etorri zitzaion lehenengoko orri zurian, "Itzulera" izenburua idatzi zuenean, isil-isilik, ostatuko gela hutsean, zirkulu zuriaren irudia gogoan zuela.

Ez zuen erritual erara ezer egin, ez zitzaion burutik pasatu ere egin, alabaina hitzek nolabaiteko espazioa ideki zioten:

“Ez dut azalpen osoa ekarri.

Ordea bai, haizearen antzera, ikasitako era baten ekarkina dakart, begiratzearena, entzute sakonarena, eta beste baten aurrean egotearen balioa.”

Pasaportea, tren-txartelak, ohar idazkiak, eta eguneroko kaiera, denak zituen motxilan gordeta. Etxeratzea ez zen ihes egitea, ezta ihesaldia utzi duenaren porrota ere. Itzultzea era bat zen. Norberaren lurrera bueltatzeko berriz urrats bat ematea, oraingoan bederen, jakin ez dakienari entzuteko prest egonda.

Loiuko aireportuan, amaren aurpegia irribarre isilean bilduta behatu zuenean, sentitzen zegoen maitasun emozio biziaz bihotza arinka jarri zitzaion. Ez zuten hitz askorik trukatu, ordea, euren arteko besarkada denboran luze joan zen.

—Topau dozu? —Galdetu zion amak, pixka bat geroago, Durangora autoan bueltatzen zirela.

Akirak ez zion berehala erantzun. Leihotik kanpora so egin eta mendien artean zintzilik zegoen laino zuria begietsi zuen.

—Topau? Ez dakit. Baina oin badakit zeri buruz galdetu gure doten.

Amak ez zion galdera gehiagorik egin. Eta biak isiltasunaren iturrira joan izan balira bezala egin zuten geratzen zitzaien herrirako bidea. Akira bidaiaren luzeaz nekatuta zegoen.

Unibertsitatera hurrengo astean bueltatu zen. TFG-an Himiko izenburua mantendu zuen, alabaina azpтитulua aldatu zion, ondorengo hori jarritz:

Sinboloa eta memoria: Norbere identitatearen bila Japoniako xamanismoaren bidetik.

Lanaren egitura ez zen lineala, ezta inolaz ere perfektua. Ordea, koherentea zen, eta, batez ere, zintzoa.

Tutorearekin bildu zenean, Maialenek begiak jaso eta irribarre egin zion. Ezer esan gabe elkar ulertu zuten: Lana baino gehiago, hura bizipena zen.

Birjasotzea

Goizeko argiak fakultateko korridorea isiltasunez blaitu zuen. Kanpotik itzuli denaren begiekin, Akirak lehen aldiz behatu zuen bere unibertsitatea. Orduan ez zitzaion pasabide hutsa iruditu, igarobide bat baino, seguraski barruan zerbait aldatu zitzaiola adierazten zuen seinale-edo izango zena.

Aurkezpena goizeko hamarretan areto txikian egingo zuten, ikasle, irakasle, eta lagun gutxi batzuren aurrean. Proiektorea piztu zutenean, pantailan Himikoren irudi estilizatua agertu zen, zuri-beltzean, ahoan isiltasunaren keinua azaltzen zuela.

Ez zuen presarik. Ez zuen ordura arte bezala, azalpenez beteriko PowerPoint-a prestatu. Irudi batzuk besterik ez zituen aukeratu: *Lainoturiko Kurama basoa goizaldean, mendiko emakumearen irudi sinbolikoa, eta harrizko zoruan margotutako zirkulua.*

Une batez, auditorioa behatu zuen eta han ikusi zuen irakasle partida bat, non euren artean Maialen Zubiri tutorea zegoen, eta lagunak eta ikaskideak, Bingen, Oihan, Laia, June, Aixa, Jon, Joseba, Inma, Maite, Alberto, Olatz... Akirak begiak itxi, arnasa hartu, eta isiltasunetik sortutako lehen hitzak garden eta garbiak entzungai agertu zituen:

—Ez naiz hona azalpen bat ematera etorri, ez eta, teorien bidez zuok konbentzitzera ere. Egia esan, nire TFG-a galdera bati eusteko ariketa izan da.

Hitzaldi-areto txikian bilduta zegoen jendeak isilik jarraitzen zuen. Ez zen urduritasunik sumatzen. Akiraren ahotsaren doinua gozoa zen eta aldi berean tinkoa.

—Himiko ez da niretzat, nola esan, soilik figura historikoa. Xamanismoaren inguruko lan bat egiten hasi nintzen, baina, bidean, ikur batek galdera bihurtu ninduen. Eta sinboloa, niretzat, ez da interpretazioa, entzuteko espazioa baino.

Pantailan argazki berri bat azaldu zen. Eremita baten barrualdea zen, zoruan zirkulu zuri bat zuena, eta haren ertzean ilargiaren argia ikusten zen.

—Bidean ulertu dut identitatea ez dela jabetza, eraikuntza prozesuan dagoen kontakizuna baino. Norberarena izaten da, eta, askotan, beste batzuen isiltasunaren bidez iradokia.

Bere azken esaldiak ozenegiak ez izateko, hitzak kontu handiz ahoskatu zituen:

—Ez dakit lan honetatik zer etorriko den. Agian soilik teoria bat. Agian kontakizun hutsa. Ordea, ziur nago, gutxienez, isiltasun horren barnean hitz batzuk geratuko direla.

Koadernoaren gainean eskua pausatu zuen, eta jendea txaloka hasi zen; ez zen izan ozenegi, alabaina, mugimendu sakon bat bezala, bai gogoeta baten hasiera bailitzan.

Aurkezpena amaitu ondoren, jendea banaka-banaka altxatzen hasi zen, elkarri isilean keinuak eginaz. Akira bere koadernoan jasotzen ari zela eman zen isilune luzea deigarri gertatu zitzaion. Orduan, burua jaiki, eta ate ondoko hormaren kontra zutik zegoen andrazkoa begietsi zuen. Entzule gehienak alde eginda ere han jarraitzen zuen. Tratu gehien zituen ikaskide eta lagunak hurbildu zitzaizkion. Banan-banan agurtu eta eskerrak eman zizkien, eurekin gerotxoago egongo zela baieztatuz. Sarbidean zegoen andrazkoak kezkatzen zuen. Ez zuen berehala haren aurpegia antzeman. Argiak beirazko atean islatzen zuen, eta haren irudia lausotuta heltzen zitzaion. Hala ere, ez zuen ohiko mugimendua, ez zuen zalantzarik agertzen. Ez zen ikaslea, ezta irakaslea. Urrats motel eta zehatzak eman zituen bere ondora inguratzeko.

Akirak arnasa hartu zuen, eta hitz egin baino lehen, andrazkoak berak apal baina tinko esan zion:

—Akira, ez dakit oraindik prest zauden, baina ezin nuen gehiago itxaron.

Ahotsa ez zitzaion guztiz arrotza egin, ezta ezaguna ere. Zerbait ezkutuan zuen. Doinu hartan nolabaiteko lotura zegoen, amets batean entzundako ahots bat izango bazen antzera, ezagutzen dena, baina non kokatu ezina egiten dena, edo horrelako zerbait.

—Nor zara? —Galdetu zion Akirak, beldurrik gabe, baina aldi berean erne jarrita.

Andrazkoak irribarre sotil bat marraztu zuen ezpainetan. Ez zen adin txikikoa, ezta atsoa ere. Ile luze iluna aske zerman, eta mendian egon izan balitz bezala, arropa apalez janzten zen.

—Ni, zure familiaren istorioaren parte naiz. Eta zure galderak ez dira bakarrik zeureak. Badira hitz batzuk, zeure arbasoenak zirenak, orain zeureak bihurtzen ari direnak.

Isilune bat egin zen. Akiraren bihotza kolpeka hasi zen, zaldi zoroaren erara.

—Ez zara amets bat, ezta?

—Ez, Akira. Eta zure arbasoak, Japoniako zure aiton-amonak, eta leinu osoa inoiz baino gertuago dauzkazu orain.

Andrazkoari begirada kendu gabe, Akira aretoko mahaitik poliki-poliki urruntzen joan zen. Emakume hark urratsa eman zuen aurrera, eta sabaiko argiak haren ezpainetan lasaitasun arraro bat marraztu zuen. Itxuraz, ez zen gaztea, ezta zaharra ere. Haren aurpegieran denborak atzera eta aurrera egindakoaren arrastoa zuen, mendian bizi den norbaiten pazientziarekin elkartuta.

—Zelan dakizu nire izena? —Galdetu zion Akirak ahots leunagoaz.

—Ez dut nik esango zinez dakidala, zure familiaren kontua izanda, baina zure arbasoek uzta txiki bat utzi ziguten, eta zuk bide hori egiten jakin duzu. Ni Akiko naiz eta Mendebeko haizeak ekarritako isiluneen artetik nator.

—Mendebe? —Akiraren begiradak dardara egin zuen—. Zer esan nahi duzu horrekin?

Akikok poltsikotik lauki xume batean tolestutako papera atera zuen. Haren barnean, koloretako orbantxoan artean ikusten zen tinta-lerroak ondorengoa azaltzen zuen izkiriata: *“Hitz batzuk ez dira itzultzen. Gorde zeure barnean, mendiko etxolan, itsasoan, edo isiltasunean.”*

—Zeure amak, euskaraz, zuon ama-hizkuntzan idatzitakoa da. Iraganetik zeure galderetara zubi bat idekita uzteko. Mendibe da bere abizena... baina *Mendi-be* ez da bakarrik abizen bat, baditu sustraiak, baditu esanahiak.

Akirak hitzak irentsi zituen. Ez zuen bere ama inoiz horrela imajinatu. Beti irudikatu izan zuen amari buruz zekiena Euskal Herriari lotuta zegoela,

hala ere, Japoniako gauza asko amarengandik ere jasoa zuen. Baina orain, izen bat —Mendibe— bere amaren abizena izanda ezaguna zitzaion, jakina, eta, aldi berean, arrotza sentitzen zuen.

—Beraz, nire ama Durangokoa izanda zuok elkar ezagutzen zenuten?

Akikok burua makurtu zuen, onarpen isilean.

—Ezagutu bakarrik ez, elkar maite genuen. Eta berak beti esaten zigun, argi zeukan: “*Noizbait, nire alabak ulertuko du.*” Eta orain hemen zaude, zeure galderak itaun bihurtuta, eta zeure ahotsa zeure amaren isiltasunari segida ematen.

Akikok papera Akiraren esku artean utzi zuen. Ematen zuen ez zuela presarik. Bere ahotsa baratza zen eta haren hitzetan, bazen historia zaharra kontatzen ari den norbaiten zorroztasuna, eta, aldi berean, begirunearen txera ere bazuen.

—Zeure ama eta biok ez ginen beti elkarrekin egoten... baina, denboran, elkarren ondoan ibili ginen. Zure ama hainbat aldiz joan zen hara, Japonia mendebaldera irekitzeko joera zuen norbait baitzen. Eta sarritan joaten zen gure artean egoteko, bere barrura begiratzeko egarria zuelako.

Akirak ez zuen oraindik hitzik ahoskatu. Akikoren hitzak arnasten saiatzen zen, nolabait esateko gogoan hartzen, sekula ez ahazteko.

—Lehen aldian zure aitarekin etorri zen. Elkarrekin iritsi ziren Kiotora. Eta, zelan esan, lehenengo egunetik, Kuramako mendiak zure ama erakarri egin zuen. Egin zutena ez zen turismoa izan. Zerbait ikusi nahi zuen, zerbait ulertu behar zuen. Eta hor hasten da gure historia. Lehen egun haietan nik gidatu nituen basoaren isilean, tenplu zaharrak erakusten, eta bere galderak entzuten.

Akikok arnasa hartu zuen, eta gero Akirari begietara behatu zion.

—Ez da harritzekoa zure ikerketak norabide hori hartu izana. Zeure ama ez zen inoiz guztiz urrundu. Ez zuen han bizitzen jarraitu, baina beti bueltatzen zen. Han, zure aitaren aldeko familiaz gain, bazuen ikusezina zen beste zerbait.

Isilune arina sortu zen. Ez zen deserosoa, baina bai trinkoa.

—Eta zergatik agertu zara orain? —Galdetu zion Akirak azkenean begiak estutuz.

Akikok zertxobait makurtu zuen burua, eta irribarre goibel batez ondorengoa erantzun zion.

—Zeure aurkezpenaren ostean jakin izan dut unea heldu dela. Behin zeure amak ondorengoa esan zidan: *“Noizbait nire alabak sinboloen hizkuntza ulertuko du.”* Eta gaur, zeure hitzek horixe bera berretsi dute. Orain badakizu zeure aitaren aldea nondik datorkizun, baina oraindik ez dakizu zergatik hautatu zaituzten.

Akirak gorputzean dardara arina sumatu zuen. Ez zen beldurra. Gogoaren ertzean zegoen zerbait zen, bide berri baten hasiera-edo.

Akikok atsedean laburtxoa hartu zuen, eta gero aretoko paretara hurbildu zen. Beirazko ate ondoko iluntasunean, une batez argitasun xumeak haren silueta erreztatu zuen.

—Behin, zeure amak honako hau esan zigun: *“Leku batean jaio garelako ez gara derrigorrez leku horretara betiko atxikitu behar. Batzuetan leku horrek gu geu hautatzen gaitu.”* Eta zeure kasuan, Akira, Kuramak hautatu zaitu.

Akira pare bat urrats hurbildu zitzaion, haren hitzetan oraindik arreta handiagoa jartzeko.

—Zeure amak Kurama mendia lehen egunetik sentitu zuen. Nik neuk ikusi nuen erakarpena zelan bizi izan zuen. Arnasa sakondu egin zitzaion, eta, bere begirada ere, nolabait esateko, aldatu egin zitzaion. Seguraski zeure aita, Aruto maite zuelako ere izan zitekeen, nola ez! Orduan jakin nuen berarengan zerbait gehiago zegoela. Baina, berak munduaren beste ertzean bizitzea aukeratu zuen, zuon Euskal Herri maite honetan, zeure aitaren ondoan, eta zeure heziketak beste bide bat hartu zuen.

Akikok orduan bere eskuak elkartu zituen, eta ahots doinua apur bat apaldu egin zitzaion.

—Baina ezin da dena atzean utzi. Arbasoen arrastoa odolean eta itzalean gelditzen da. Eta mendi horrek, mendi horren inguruan bizi diren emakumeek zeure amarenganako begirune berezia izan zuten. Ez bakarrik ulertu zutelako, isiltasunaren jakinduria bere barruan gorde zuelako baita.

Akikok orduan airean lerro zuzen bat marraztu zuen, eta zera gaineratu zuen.

—Egun batean, zure ama galdezka hasi zitzaigun: “*Eta nire alabak zer ekarriko du nire ondotik?*” Orduan, zin egin genion elkarri, zeure ametsak sinbolo bihurtzen hasiko zirela, eta zeure urratsek isiltasunaren iturrira galderak eramango zituztela. Gaur, hori bete egin da. Eta, orain, zeure bidea ez da gehiago zeurea bakarrik izango.

Akirak begiak pixka bat zabaldu zituen. Ez zekien ziur zer esan behar zuen. Alabaina, bihotzean, malko baten pisua sentitu zuen hozitzen.

—Eta zer esan nahi du horrek guztiak? Zer espero da nigandik?

Akikok irribarre goxoa eskainiz begiratu zion, eta ahapeka erantzun:

—Ez da zerbait egiteko. Ez dago planik, ez misiorik. Baina zeure presentzia, zeure galdera, zeure arreta, horiexek dira jasoko ditugun oparirik handienak. Eta laster, zeure ondoan norbaitek beste urrats bat emango du. Bideak ez du amaierarik. Zeuk idekitzen duzun atea beste norbaiten ahotsa ekarriko du.

Zirkuluaren ertzean

Une batez dena gelditu egin zen.

Ez zen aretoa hutsik geratu zelako, ezta Akikoren ahotsa isildu zelako. Geldialdia barrutik etorri zen. Akiraren bihotza, gorputza, eta pentsamendua, bat-batean elkarri begira lotu ziren. Sentitzen zuena ez zekien zelan azaldu, ordea, bere senean zerbait lehertu edo askatu egin zitzaiola antzeman zuen.

Eskuan zuen paper tolestua behatu zuen berriro. Euskara hutsean izkiriaturako esaldi hark: “*Hitz batzuk ez dira itzultzen. Gorde barruan, mendiko etxolan, itsasoan, edo isiltasunean*”, ez zuen azalpenik eskatzen. Ulertzen ez zuen zerbaiten parte zen, hala ere, arrotza ere ez zitzaion egiten. Agian, lehen aldiz, bere ama beste hizkuntza batean imajinatzen ari zen, beste lur batzuetan, beste isilune batzuetan.

—Prest al zaude? —Galdetu zion orduan Akikok, ahots apal bezain argiz.

Akira bere barnera begira egon zen une batez, eta, gero, buruarekin baietz ihardetsi zion. Ez hitz batekin, ez keinu teatral batekin, senetik iristen den mugimendu sotil horrekin baino, bide bat hasten denean gertatzen den antzera.

Akikok atea ideki zuen.

—Badakizu nondik joango garen?

—Kuramara? —Galdetu zion Akirak, hasperen sakon baten ostean.

—Kuramako bidea ez da beti mendian hasten. Batzuetan zeure baitako zirkulu baten ertzean hasten da. Eta beste batzuetan zeure amaren begiradan.

Akira segundo bat geldi geratu zen. Orduan jabetu zen amarekin hitz egin behar zuela. Ez soilik galdera batzuk argitzeko, bere burua ulertzeko baino.

Zehaztugabe, baina irmo, urratsak eman zituen Akikoren ondora hurbiltzeko. Ez zekien zehazki nora zihoazen, baina bai zergatik. Eta hori hasiera bat zen.

Kalean behera, banku batean jesartzera zihoazela, Akikok ez zuen ezer esan. Hitzik gabe zihoazen biak, eta Akirak eskertzen zuen hori. Batzuetan bidea ez da hizketan egiten arnasketan baino. Unibertsitate inguruko lorategi txikian eserita, Akikok burua makurtu zuen zera esateko:

—Uste dut prest zaudela.

Mugikorra atera eta Akira pantailari begira geratu zen. Ikurrean “AMA” hitza zegoen. Ez zen ohikoa une hartan deitzea, ezta ama hitz egiteko moduan egotea; ez zuen gogoratzen amaren institutuko ordutegia. Deiaren soinu gozoa entzumen hoditik bihotzera igaro zitzaion. Zain geratu zen. Eta orduan, ezagun zuen ahots eztiak erantzun zion:

—Bai, Akira!

Arnasa sakon hartu zuen ez zekielako nondik hasi.

—Ama, zure inguruko gauza batzuk jakin dodaz, eta noz egon ginkitez berba eiteko, baina ez betiko moduen, sakonau baino. Beste maila batien, akaso.

Jarraian isilune bat etorri zen. Ez zen larritasunak ekartzen duena, ordea bai zentzuz betea denak dakarrena.

—Nun zauz? —Galdetu zion amak, ahots apal baina ernean.

—Bilbon ondino, baina ointxe noie Durungora. Gaur aurkezpena ein dot eta zeozer pasau jata. Akiko izeneko andra batek zeure izena aipatu doste. Japonieraz berba ein dogu eta Kuramako mendiari buruz be bai. Eta nire lan honek oin emoten doste ez dauela bakarrik azterketa bat emoten. Zeozer barrutik mugidu doste.

Beste isilune bat egin zen. Hala ere, bestaldetik aditzen zuen isiltasuna ez zen arrotza. Ama beti izan zen entzuten jakin zuena. Sekula ez zuen berehala erantzuten. Arnasa hartzen zuen, barrutik hitzak probatzen dituen norbaitek bezala.

—Kurama, —murmurikatu zuen azkenean—. Bai, aitegaz ein neban lehelengo bidaie izen zan. Eta hara, lehelengo bider, Akikok berak eruen

ostan, zu mundura ekarri aurretik, zeure bostgarren hilabeteko haurdunaldidjen. Eta oin, zuok alkar topau izanak ez doste harritzen. Denborie holangue da, dudarik bez eukin. Zirkuluen barruen izurtzen da. Akiko, —errepikatu zuen amak—, aspaldidjen ez dot haren izena entzun. Beragaz lotura berezie izen neban, bai. Eta badakit zertako agertu dan oin.

—Badakizu? —Amatxo zer dau atzien? Zer da guzti hau?

Akirak malko bat masailetik behera zihoakiola antzeman zuen, alabaina ez zuen kentzeko beharrik sentitu. Une hura garbia zen.

Beste muturrean, amaren ahotsa apaldu egin zen, laztan bihurtzeraino.

—Ondino ez da sasoie dana kontetako. Baina zeozer itzi notsun, gaur arte ez zabaltzeko izen biher ebana. Etxeko armairu zaharrien dau, goiko apalien. Kaxa txiki bat da eta ez deko zure izena idatzite, baina barruen dauena zeuretzako da. Eta Kuramara bazoiez hobe izengo zan lehenau hori zeugaz eruengo bazeunke. Bai, alaba, bide bat zabaltzear egoela sentidu neban. Eta oin pentsetan dot, seguru nau gainera, prest zauzela. Baiña hara juen aurretik erdu hona. Ikusi gure zaitut, besuen artien eukin, arnasa erdibanatu.

Une batez, Akirak hasperena eten zuen. Zer zegoen kutxa hartan? Zergatik ez zuen inoiz ikusi?

—Eta zeuk noz zabaldu zinun zeure kaxa? —Galdetu zion, emeki.

Amak ez zuen berehala erantzun. Azkenean, hitz batzuk marmarka, baina argi iritsi ziren:

—Ni ez nengoen zabaltzeko prest. Eta iguel ondino be ez nau. Baina zu zeu, zu zeu bidien zabiz. Eta hoixe, alabatxue, handidje da.

Akirak burua makurtu zuen eta begiak itxi. Bere bihotzean zerbait hasi zen baretzen eta beste zerbait esnatzen.

—Eskerrik asko, amatxo. Laster egongo gara.

—Bai. Eta gogoratu dana ezin dala aitua. Baina entzun, entzutie beti ein leike.

Akiraren begiak bustitzen hasi ziren. Ez zen negarra, ezta dolua ere. Arnasa askatu zuen eta irribarre leun batekin zera erantzun zion:

—Bueltauko naz, bueltauko naz, bai horixe, ama, laster. Eta luze eingu berba.

—Itxoiten eukiko nozu. Eta badakizu zirkuluek ez direla itxi biher. Batzuk zabalik egoteko jaio diez.

Deia moztu zen. Isiltasuna berriro Akikoren begiradarekin bat egin zen.

Akirari irribarre xehea ilki zitzaion. Seguraski bazekielako zer egin behar zuen.

Kaxako giltza

Goizeko argitasuna leihotik barneratzen hasi zenean, Akira jada jaikita zegoen. Gaua ez zuen loaldirako denbora bakarrik izan, bere amaren ahotsaren oihartzunaz betetako gogoeta luzearentzat ere izan zuen. Ama ikustera joan behar zuen, bere begietara so geratzeko, eta azken galderarik ez bazion egiten ere, behinik behin, bidaiaren aurreko isilunea berarekin erdibanatzeak denbora baterako bihotzeko grina asebeteko zion. Hala ere, guzti horren aurretik kaxa zegoen.

Etxeko armairu zaharrera isil-isilik hurbildu zen. Zurezko bi ateen ez zuten kirrinkarik atera, eta zabaldu bezain laster, barruko usainak ereinotz lehorraren sasoia ekarri zion gogora. Goiko apalean, zetazko trapu beltzean bilduta kaxatxo zegoen. Ez zen handia. Ez zuen izenik. Ez zen dotorea. Ordea, Akirak berehala jakin zuen huraxe zela amak aipatutakoa.

Esku artean hartu zuenean, pisuak harritu egin zuen. Ez zuen ohikoa izaten den astuntasuna, ez eta soilik objektu batez betea izaten denekoa. Barrundatzen zuen barruan zer bait gehiago egon behar zuela. Agian ezagutzaren pisua izango zen; seguraski horixe zitekeen.

Mahaiaren gainean jarri, eta, arnasa sakon hartu ondoren, idekitzera ausartu zen.

Behatu zuen lehen gauza, oraingoan zeta oihal zurian bildutako pieza bat zen. Zurezko egur landua zen, eraztun baten antzekoa, baina ez hatz batean jartzekoa. Barrutik hutsik zegoen zirkulua zen, albo batean ilargiaren sinboloa grabatua zuena, eta bestean basoko haritz hostoa.

Gero, ama hizkuntzan zegoen gutun bat behatu zuen, euskara garbian eta gozoan, letra zoli eta apalean izkiriaturia zegoena.

Akira, hau ez da ezelango azalpena, ezta agindua, oroimen zatitxue baino. Amets baten keizpie dala esango neuke. Zeure umearoan halako gau batien, lotan zengozala Kurama aipatu zinun. Nik ez neban ezer esan, baina jakin banekien, eta badakit, ondino ez dala amaiera. Hasi besterik ez

da ein. Jaso hau zeure modure. Zelan ez! Eta bidien... entzun, beti entzun. Ama.

Azkenik, pasaporte zegoen, eta bidaiarako dokumentazioa. Bi egun barrurako Tokiora joateko hegaldiko billetea zen, Akiraren beraren izenean zegoena.

Akirak ez zuen negarrik egin, ez eta barrerik ere, baina bihotzean antzinako zerbait zabaldu zitzaion, erritual baten lehen mugimendua bezalako zoezer.

Zirkulua hartu zuen eskuetan. Argitik babestu eta bularra ukitzera jarri zuen, gero arnasa sakon hartzeko.

Eta orduan gogoratu zuen ametsetan entzundako ahots hura: —*Juen zoiezen leku hori ez dau urrin, zeure barruen dauena bisitatzeraz zoiez da.*

Trenez zihoala, leihoaren beste aldera begira zegoen. Hurbiltasunean haitzen tontorrak elkarri keinuka zebiltzan.

Durangotik Bilborako ibilbidea ez zitzaion luzea egin, ordea bai sakona. Etxeko atea irekitzean, ama sukaldeko leihoaren ondoan zutik zegoela behatu zuen. Ez zuten berehala hitzik egin. Biek zekiten une egokia zela, hala ere, ez zen azalpenak emateko denbora.

Besarkada luzea eman zioten elkarri, estua, isila, ezinbestekoa.

—Prest zautz? —Galdetu zion amak, burua Akiraren sorbaldaren gainean pausatuz.

—Zeure kaxie zabaldu dot, —xuxurlatu zion Akirak—. Kartie, zirkulue, eta pasarte bat. “Zelan ez. Zeure modure.” Hori esan zinun.

—Eta hoixe espero dot. Ez juen nire pausuen atzetik, zeuriek topau biher dozuz.

Ezkaratzeko mahaian eserita, amaren eskuak betikoak ziren, lasaiak, sendotasunez beteak, leunak.

—Bi egun barru abioie hartu biher dot. —Esan zion Akirak—. Eta badakit ez nazela turista baten modukue izengo.

Nekez geldiarazten diren malkoen ataritik, amak irribarre goxoa agindu zion.

—Han, izeteko moduek ez otsule bilatu. Izen zaitez zaren modukoe. Eta ez ibili izkutuen dauen sekretu baten antzera, entzun? Eta batez be, zeure isiltasune entzun, hoixe da zirkuluaren erdigunie da. Hoixe da hutsunearen esangurie, isiltasunez beteta egoten dan hutse.

Zerbait utzi zion ordainetan. Ez zen objektu bat izan. Esku artean hartu eta gordetako arnasa baino, belaunaldiz belaunaldi, esku batetik bestera ematen den kontu hori bezala.

Agurra laburra izan zen, biek baitzekiten ez zela azkena.

Eta Akira berriro trenera igo zenean, zirkulua esku artean zuen, bere baitara itzulita zegoen, barruan bide bat piztuta zuelako.

Akira Durangoko geltokian trenetik jaitsi zenean, eguzkiaren azken printzak gordetzera zihoazen. Azaroko hotzak ingurua besarkatzen zuen, eta aireak Mugarrako hezetasuna hara-hona zerabilen oraino. Etxerako bidean kaleak lasai zeuden, denda batzuk itxita ikusten ziren, eta farolen argi zurixkak urrats bakoitza blaitzen zion.

Giltza sarrailan sartzean, etxeko atearen zuraren kraska entzutean, zerbait barruan dardarka hasi zitzaiola nabarmendu zuen. Ez zen beldurra, ezta zalantza ere. Besterik gabe, seguraski kontzientzia izango zen. Senak bilduta zuen bere etxe hartan bizi izan zuen guztia, eta orduan handik abiatzera zihoan. Etxea horretaz jabetuta zegoela ematen zuen, Akira denboraldi baterako bazihoala beste nonbaitera.

Gela barruan, mahaiaren gainean zeuden koadernoak behatu zituen, eta paretako kartel zaharra ere bai. Antzinako erretratu zuri-beltza zen, Bethlehem-go aita-semeak ogiz beteriko otzarak zeramatzan astoa kordeletik eramaten, eta beheko aldean *free Palestine* jartzen zuena. Une batez gelditu egin zen, irratitik aditzen zen Soft Rock musikaz gozatzeko. Aurkezleak Gar taldea zela zioen, Jonen ahotzaz, “*preziatuak diren momentuak*” tema jotzen. Ohe gainean maleta zabaldu eta gauza gutxi batzuk sartzen saiatu zen, besteen artean arropa eroso, eguneroko kaiera, amaren gutuna, zirkulua...

Gaua lasai igaro zuen. Lehenengo aldian leihoaren beste aldera begira, izarren artetik norbaitek begiratuko balio bezala sentitzen zen. Ez zuen lo sakonik egin, hala ere, gorputzean ez zuen nekerik, zetorkiona onetsi eta aurrera egiteko prestutasunean jantzita baitzegoen.

Goizean goiz, Bilborako tren hartu zuen berriro. Etxera heldu zenean, amak kafe beroa zeukan prestatuta eta azukrea gaineratu aurretik, zera galdetu zion:

—Prest?

—Bai, edo prest egoteko moduen.

Barre arina, zehazki irribarretxoa partekatu zuten. Gero, maleta hartu, autora sartu eta Loiurantz abiatu ziren.

Bidean ez zuten berba asko egin. Ematen zuen errepidea isiluneen tokiz josita zegoela, ordea ez ziren tentsio guneak. Isilaldi haietan bazen eurentzat zerbait berezia, alegia, barkamena, maitasuna, baimena.

Aireportuko terminalaren aurrean, beste behin elkar besarkatu zuten. Ez zen luzeegia izan, ez eta azkarregia.

—Deitu zeinkenien, deitu, e! Da eskribidu be bai, —eskatu zion amak.

—Bai, da entzun be eingot.

Atzera be irribarre gozoa agertu zuten.

Hegazkinaren atetik sartu aurretik, Akirak gibelera begiratu eta amaren irudia zuri eta gorriaren artean desegin zen. Ez zen agurra, bide batean aurkitzen den atearen erakoa baino.

Eta atea zabaldu egin zen.

Haize berrien usaina

Hegazkina azkar hurbiltzen zihoan Haneda-ko aireportura. Leiho ondoko eserlekutik, beste behin, Akirak bere aitaren lurraldea behatu zuen. Anitz kolore berdeko basoak, lur beltz samurra, itsas bazterreko eraikin txikiak, eta, ia olio-pintura batean bezala, urrunean, lainoz inguratutako eremuan, Fujiren tontor elurtua begiesten zuen. Mendebaldetik haizeak gogor astintzen zuen, sumindurik bezala, eta itsaso bizian olatua harrotuta zetorrela zekusan, Kanagawa erraldoiaren itxurakoa, Hokusai maisua gogora ekartzera moduan-edo.

Ez zuen ezer esan. Arnasa hartu eta une batez zirkulua sakelatik atera zuen hatz artean laztantzeko. Ilargiaren sinboloa eri-muturrekin eztiki zeinatu zuen, isiltasunaren oihartzuna berreskuratzekeo arduraz.

Aireportuan jendetza isilkorrraren artetik igaro zen. Ematen zuen mugitzen zen anitz pertsonak bere baitan bazekiela nora zihoan, ordea Akirak ez hainbeste. Baina ez zuen galduko zenaren sentipenik: *“Inora ez doan inor ez da inoiz galtzen, oraindik iritsi baino ez da egin eta”*, bat-batean heldu zitzaion oroimenera.

Zerbitzari baten ahotsa entzun zuen, ingeles doinu atseginean ozen hitz egiten zuela. Maleta jaso, pasaporteak erakutsi eta metrora abiatu zen.

Kanpora jalgi zenean, lehenengo haizeak aurpegian jo zion, ez bortizki, baina kolpetxoa izan zen. Ez zuen hotzik egiten; bazen zerbait. Usain arina sumatzen zen, lur hezea, belar berdea eta ke pitina nahasia zuena.

Eta berriro hasperen sakona egin zuen.

Orduan, plan zehatza zuen, Kyotora joatea, Kurama mendira igotzeko bidea kausitzeko. Ordea, horretarako gutxienez egun bat beharko zuen, egokitzekeo alegia, lurraren erritmoa bere bihotzarekin neurtzeko.

Tokion egonaldi laburra egin zuen. Hiri erraldoia zen, eta, aldi berean, arraroa ere bai. Ez zuen estutasunik sentitzen.

Hurrengoko eguneko arratsalde aurreratuan, Tokaido Shinkansen izeneko tren ez abiatu zen Kiotorantz. Bere parean eseri zitzaion atso adinduak begirada luzea eskaini zion. Ez zion ezer esan, baina jaisteko jaikitzean, paper zati bat utzi zion eserleku gainean. Honako hori zen:

一度も戻らない風でも、すべての葉を

Inoiz itzultzen ez den haizeak ere, hosto guztiak eramaten ditu.

Shinkansen trena geltokira heldu zenerako Kyoton iluntzen ari zuen. Inguruko jendeak oso baxu hitz egiten zuen, eta bideko farolen argiek urrez tindatzen zituzten karriketako harriak. Ez zuen sentitzen galduta zegoenik, ordea iritsi zela ere ez. Trantsizioaren muinean zegoela irudikatzen zuen, eta hori nahikoa zitzaion.

Gion auzuneko ostatu txiki bateraino aire girotua eta guzti zuen autobusez heldu zen. Eraikinak sarreran harrizko patioa zuen, eta barneratzeko sargunearen alboetan paper-lanternak zintzilik zeuden, nolabait harrera bitxia egitera bezala. Ostalariak irribarre egin eta giltza eskura eman zion.

—Yukkuri yasunde kudasai. Atsedeen ona izan dezazula.

—Domo arigato, —ihardetsi zion Akirak.

Zoruan tatamia zuen logela soil bat zen, zurezko leihoa hegora begira, eta txoko batean lurrin arina aireratzen zuen teontzia.

Ez zuen ezer berezirik egin. Bainuan urez bustitzea behar zuen; maiz toallatxo ur freskoan bustiaz gorputza laztantzen zuen nekea kentzeko ahaleginean. Eta gero, gauaren arnasa hartzera kalera jaitsi zen. Hotz egiten zuen. Ez zuen maparen beharrik, norabidea gorputzak erakartzen baitzion, eta karrika estu batetik abiatu zen.

Handik ez denbora askora, tenplu baten atarian azaldu zen. Atea zabalik zegoen, eta, barnetik, harrizko bidetik lorategi txikira iritsi zen. Ez zen inor ikusten.

Barrura sartzeko, Akirak urrats motelak eman zituen, eta, han, urki zahar baten oinetan gelditu egin zen. Iluntasunaren, eta, aldi berean, farolaren argipean emakume bat zegoen eserita. Kimono beltza zeraman jantzita, eta hatzekin zerbait josten ari zen.

Ez zuen bururik jaiki, alabaina hitz egiten hasi zitzaion.

—*Zirkulua ez da zirkulua barruan esertzen ez den bitartean.*

Akirak ez zion ihardetsi. Ez zekien andrazko hura nor zen, eta ez zion ezer galdetu.

—Ez da galdera bat, —jarraitu zuen andrazkoak—, keinu bat baino. Eta keinu horren oihartzunaz iritsi zara honaino.

Orduan, eskuan zeraman jositakoa Akirari eskaini zion. Zapi txiki bat zen, zuri-beltzez brodatua, zirkulu baten barruan haritz hostoa eta ilargia zuena.

—Nor zara, ba? — Xuxurlatu zion Akirak galdera eran.

Emakumeak irribarre egin eta burua zertxobait makurtu zuen:

—Ni nor naizen jakiteak orain ez dizu lagunduko. Baina badakit zure ama nor den. Eta berak honako hau esan zigun: “*Zirkulua zabaldu egingo du.*”

—Eta nola zabalduko dut? —Galdetu zion Akirak.

—Galdetu barik, joan, eseri zaitez eta entzun, entzun ezazu!

Orduan, emakumea zutitu eta tenpluaren barrualdera sartu zen, astiro-astiro, itzala bihurtu zen arte.

Akira kanpoan geratu zen, zapi brodatua eskuetan zuela. Ez zekien zergatik, baina bularrean lasaitasun arin bat sentitu zuen, ezti samarra, iluntasunean argia bezala. Eta zapi hura bere eguneroko kaieraren orri artean gorde zuen.

Akira egunsentian jada jaikita zegoen. Leihoaren barrenetik igarotzen ziren eguzkiaren lehen printzak zurezko zoruan pausatzen ziren, egunari nolabaiteko esperantza ekartzera etorri izan balira bezala-edo.

Kyotoko iparralderantz joateko trena hartu zuen, bere asmoa Kuramara heltzea baitzen. Hangoa geltoki txikia zen, mendiko airez jantzita zegoena, eta benetako bidea hantxe bertan hasi zuen. Urrats motelak eta aldi berean irmoak ematen hasi zen. Ez zuen inolako turistaren antzik, ez eta erromes batena ere, baina biek, bai turista zein erromesak bazuten berarekin nolabaiteko antzekotasunik.

Kurama-derako igoera ez zen bakarrik maldan gora egitekoa. Inguruan zuhaitzak zabalduz zihoazen, eta usaintzen zen aireak zurezko tenpluen lurrin bera zeukan. Han-hemenka, harrizko eskailerak eta torii-ek bidea erakusten zuten, ordea Akirak ez zuen aitzindaririk behar, barneko zerbaitek gidatzen baitzuen.

Bidean gora zihoala, basoaren isilkarak ez zuen hutsak iradokitzen duen isiltasuna. Txorien txio bakartiak, harriaren gaineko ur tanten kolpekatzeak, dena zegoen soinu beteta, ordea hitzik gabeko harmonia zen.

Halako batean, bidearen ezker aldean bazegoen teilatu kurbatua zuen zurezko egitura txikia, eta inguruan paper zuriak airean dantzan zebilzkion. Atearen ertzean ikur bat begiesten zen, zirkulua, ilargi erdia, eta, gainera, lau hosto txikiz osatua zegoena.

Akira barneratu zen. Baseliza ez zen handia. Aldare xumea zuen, eta bizkarra emanda, zoruan jesarrita, emakume oso begikoa ikusten zen. Ez zen Akiko, ez eta aurreko tenpluko andrazkoa. Beste norbait zen, hala ere, besteekin parekatuz jas bereko baretasuna erakusten zuen.

Akirak ez zuen hitzik egin, baina emakumeak zerbait manatu zion, gonbidapen erara ordenatu ere:

—Zu hemen esertzeko unea heldu da. Orain ez da jada erantzunak bilatzeko, ezta galderak ixteko denbora. Zure gorputza hemen dago, eta zure ahotsa isiltasunaren ertzean dantzan dabilkizu.

Eta orduan, gelaren erdian zegoen zurezko ontzi txiki bat adierazi zion. Inguruan maindire itxurako harea zuen eta alboan zirkulua, zeinaren erdian zurezko ilargi txikia behatzen zen.

—Hasi zure zirkulua. Ez dadila izan amaitzeko, zure arnasa bertan idazteko baino.

Akirak belaunak tolestu eta harea ukitu zuen. Hasieran ez zuen ezer marraztu, baina gero, hatzarekin zirkulu berri bat egin zuen. Ez zen itxuraz osoa, ezta erregularra ere, ordea, berea zen, eta hori gora handikoa zen.

Eta arnasa hartu zuen, mendiko airea bihotzeraino heldu zitzaion arte.

Harea xehean zirkulua markatuta utzi ondoren, Akira eremitatik jalgi zen. Kanpoan, eguzkia gorantz bazetorren ere, mendian beti izaten da itzalen eta

argien arteko nolabaiteko dantza, batzuetan Arin Arin dantzaren erakoa izaten dena, bestetan melodikoagoa, eta sarritan Hanayagi intimoagoaren antzekoa. Kurama ez zen soilik lekua, zerbait entzuten zen ingurua baino.

Zuhaitzen artetik aireak bestelako usaina zekarren. Akira izai erraldoiaren ondoan geratu zen. Eskuarekin enborra ukitu eta begiak itxi zituen.

Eta orduan ahots bat entzun zuen. Ez zetorkion kanpotik, ez eta barrutik, aldi berean bien artetik baino:

—*Zure ama hemen egon zen.*

—*Bere buruarekin lehen aldiz hemen hitz egin zuen.*

—*Eta zuk entzun ahal izateko, hitz batzuk hemen utzi zituen.*

Begiak zabaldu zituenean, inguruan ez zegoen inor. Baina lurrean, zuri-beltzez tindatutako hosto bat behatu zuen, eta gainean tinta mehez ondorengoa zuen izkiriata:

Badago hizkirik gabeko egia. Eta batzuetan, ama batek ezin dio bere alabari hitzez igorraz. Ordea, haizeak, haizeak badaki helarazten.

Hostoa jaso eta une hartan beste zerbait gertatu zen. Gibelean urrats baten soinua aditu zuen eta bueltatu egin zen.

Ez zen Akiko, ez eta aurreko bi emakumetako bat ere. Ez zegoen emakumerik. Gizonezko gaztea zen eta haren aurpegia ez zitzaion guztiz arrotza egin.

Gazteak ez zion ezer esan. Hala ere, eskuan zurezko kutxa txiki bat zeraman, eta zuzenean Akirari luzatu zion.

—Honako hau zuretzako da, —esan zion ahots apalez—, bidearen bigarren zatirako oparia. Arren eskatzen dizut oraindik ez idekitzea.

Akirak kutxa eskuetan hartu zuenean begiak itxi eta zabaldu egin zituen, eta jabetu zen jada gaztea desagertu egin zela. Alde guztietara begiratu bazuen ere, handik ez zen haren errazturik.

Akira bakarrik zegoen berriro. Baina ez zegoen hutsik. Ez zegoen galduta.

Eta kutxa motxilan sartu ondoren mendian behera jalgi zen, ohartuta barruan beste zirkulu bat hasi berri zuela.

Kutxaren barnekoa

Ostatura bueltatu zenean, iluntasunak kalea hartuta zuen, eta egiten zuen haize arinaren aurrean, paperezko lenternek Kabuki dantzan bezala murgilduta begiesten ziren, nolabait dramatismoz eta antzerki-jitez jantzita. Akira isilik barneratu zen logelara, eremitatik jaso zuen hosto zuri-beltzarekin batera zurezko kutxa motxilan zuela.

Ez zuen berehala ideki. Mahaiaren gainean pausatu ondoren, arnasa doi-doi hartu zuen. Gero leiho ondoko tatamian eseri, begiak itxi eta eskuak zabaldu zituen.

Kutxaren tapa ez zegoen zigilatuta. Ez zuen giltza sartzeko sarrailarik, baina halere, zabaldu aurretik baimena eskatzea haren inguruan errituala modura zegoela hautematen zen, eta nolabaiteko baiezkua barneko isiltasunetik omen zetorkion.

Poliki-poliki ideki zuen.

Barruan, hiru gauza behatu zituen.

Lehenengokoa zurezko ilargi erdia zen, eta haren oinean grabatuta zegoen esaldi bakarreko inskripzioa, letra xehez eta euskara hutsean zegoen izkiriaturata:

*Isiltasuna ez da hutsunea. Gorde duzun guztia hor bertan
kausitzen da.*

Bigarrena erretratu zaharra zen, Kuramako zuhaitzen artetik, bere ama gaztetan agertzen zuena. Ez zebilen bakarrik, Akiko zegoen berarekin, eta, atzean, keinu argi batekin, aurreko kapituluan agertu gizonetako gazte ezezaguna. Argazkiaren atzealdean, idazkera apal batez ondorengoa irakurtzen zen: “*Hiru isiltasun, zirkulu bera.*”

Begiesten zen hirugarrena, orri pare batean amak eskuz idatzitako gutun tolestua zen. Horrela zioen:

Akira, zeure barruen hasten dana ez da izeten kanpotik datorrena. Zirkuluen ez dau norabiderik, baina dana mugitzen da barrutik. Zeure lehelengo berbak esan baino lehenau, bazenkien zer zan isiltasune. Eta hori, alabatxo, ezagutza baino gehidjau da, konfiantza dalako. Hemen nau, ez bakarrik zeure oroimenien, zeure ahotsaren arrastuen be bai. Ez bilatu erantzunik. Eta ez eukin bildurrik galderak zabaltzen direnien. Gorde ilargi hau, ze gauak argitzeko ez da beti argidje biher, batzuetan argidjena gerizpie aitzie da. Zeure ama.

Akirak ez zuen negarrik egin. Hala ere begiak busti egin zitzaizkion eta ez zituen sikatu. Halako sentimenduan ez zegoen, ez minik, ez galerarik, ez eta dolurik, ohikunearen atal bat baino.

Kutxa itxi zuen berriz, baina ez zuen hori egin barruan zerbait gordetzeko, barrutik zerbait askatzeko baino.

Eta gau hartan, ez zuen Kuramako haizearekin lorik egin, alabaina benetako atsedena hartzeko lehen aldia izan zuen.

Egunsentia baino lehen jalgi zen. Ez zuen inor ohartarazi. Ez zuen ezer hartu, ezta eguneroko kaiera ere. Azken agerpen baterako ez zuen beharrezkoa ezer idaztea, gorputzak gertu eramaten duelako oroitzapenaren tinta.

Kuramako mendiaren goiko aldera iristeko ez zegoen bide bakar bat markaturik. Eskuineko bidexka hartu zuen, oinpean adaxkak eta belar bustiak makurtzen zitzaizkiola, eta airean usain zaharrak, kea, lurra, eta harri bustiaren gomuta zekarkion. Gorantza zihoan heinean, arnasa sakontzen hasi zitzaion, hala ere neskarentzat nekea ez zen oztopo, mendiak berak ematen baitzion beharrezkoa zuen kemena.

Eta orduan, zuhaitzen arteko zabalgunek batetik gailurrera iritsi zen, edo hala uste izan zuen berak.

Ez zegoen aldarerik, ez tenplurik, ez eta zutikako harririk. Harri zabal baten erdian zirkulu bat marraztuta behatu zuen, eta zirkuluaren erdian, kasik zaharkitua baina oraindik tente irauten zuen zurezko zutabea.

Akira zirkuluaren ertzean geratu zen. Ez zuen ezer entzuten ez eta ikusten. Eta orduan... zeozer gertatu zen. Ez zen ikusgarria izan, ezta distiratsua, agerpen bakar bat baino. Argitasuna eta iluntasuna ez zeuden bananduta. Eta ezagutzen ez zuen ahots batek zera esan zion:

—Ez zara hona galdera bat egitera etorri. Eta ez zara erantzuna jasotzera joango. Baina isiltasun honetan zeure bizkarra zuzendu duzu, eta hori nahikoa da.

Egurrezko zutabea, Akirak bere amaren izena zizelkatuta zegoela behatu zuen, eta zirkulu txiki baten barruan berea.

—Zure ama ez zen hemen bera bakarrik egon. Berarekin bazegoen beste isiltasun bat ere. Eta zu, Akira bi isiltasunen arteko arnasa zara.

—Ez zaitez beldurtu. Ez bihurtu den-dena azalpen. Egizu bidearen memoria.

Argia aldatu egin zen, ez kolorez, tonuz baino. Akirak orduan zirkulua gorputzaren barnean senti zezakeen. Eta ahotsa ez zen kanpotik ailegatua, bera zen, berea zen, bere barnetik zetorkiona.

—Orain zoaz. Egizu bidea zeure erritmoan eta norbaiten oihartzunarekin.

Ez zen malkorik egon, ezta keinurik ere, baina han, zuhaitzez betetako basoan, hosto batek airean biratu egin zuen eta bere ondora jausi.

Hosto hartan, tinta urdin argiz esaldi bakarra zegoen izkiriatuta.

“Denbora ez da igarotzen, zuk zeuk zeharkatzen duzu.

Akira makurtu egin zen, hostoa jaso, eta bere sakelan gorde zuen. Beharrezkoa izan zuen hasperen sakona egitea, eta, gero, menditik behera jaisten hasi zen.

Orduan bai, orduan etxera bueltatzeko prest zegoen.

Itzulera isila

Hegaldiak ez zuen ezer berezirik izan, ez aire-turbulentzietan, ez eta zerbitzuetan. Baina Akiraren barruan zerbait mugitzen zen, isil-isilik. Ez zen ezer berria, ezta arrotza, zirkuluaren itzulera zen, baina orain barrutik betea.

Leiho ondoko eserlekutik itsasoa begiesten zuen, zabala, urdin-grisa. Mugagabetasuna behatzen bazuen ere, bere baitan ondorengo oldozketa gordetzen zuen: *Norberaren isiltasuna ez da inoiz hutsik egoten.*

Loiuko aireportuan lurra hartu zuenean ezpain artetik barre arina ilki zitzaion. Maleta hartu eta ama ikusi zuen zain zuela. Ate automatikoak zabaldu zirenean, egin zuten lehen gauza begietara behatzea izan zen. Ez zuten hitzik egin ezta besarkada azkarra eman. Biek zekiten isiltasunaren ostean gorputzak badakiela lehenengo zer egin behar duen.

Elkar besarkatu zuten.

—Buelta onien? —Xuxurlatu zion amak.

—Bai, eta ekarpen onarekin gainera, —erantzun zion alabak.

Etixerako bidean, autoaren leuntasunak errepide ondoko mendixkak barrenetik zeharkatzen zituen bitartean, amaren eskuak bolantearen gainean zeudela, une batez alabari so geratu zen.

—Zure begirada aldatu ein da, —esan zion.

Akirak irribarre lauso batez burua makurtu zuen.

—Kuraman dena da posible.

Durangora heldu zirenean, etxean dena zegoen lasai; egunerokotasuna, egongelako kuxinen ordena, sukaldeko loreontzia... Ordea, orduan, Akirak bazekien barrua eraldatzeko, lekuak ez direla zertan aldatu behar.

Maleta uzteko logelara zuzendu zen. Leiho ondora hurbildu eta bertatik lekora begira geratu zen; herriko teilatuak, eguraldi barea eta hurbiltasun narean Mugarra.

Ez zen Kurama, jakina, ordea Mugarra, bere Mugarra zen, eta haize hura ez zen guztiz bestelakoa.

Eta orduan, sakelatik hostoa atera zuen. Hura zen Kuramako gailurrean jaso zuena, tinta urdin argiz idatzita ondorengoa zuena.

Denbora ez da igarotzen, zuk zeuk zeharkatzen duzu.

Hosto hura eguneroko kaieraren azken orrien artean gorde zuen, eta plama garbian ondorengoa idazten hasi zen:

Isiltasuna ekarri dut eta isiltasunean beste zerbait hasiko da.

Akirak bere logelan segitzen zuen, gauaren isiltasunaz hausnarrean, ez baitzen Kuramakoa, etxekoa baino, etxe barrukoa, ama afaria ipinten, tximinia ondoko arrainen borborra, karrikatik ailegatzen ziren urrats bakartiak... Leihoaren aurrean zegoen berriro, hala ere, oraingoan, inora jalgiteko asmo barik, egonean.

Eguneroko kaiera idekita zuen, ordea ez zuen bere buruari idazteko zabaldu. Beste orrialde batean, goiko aldean izen bat izkiriatu zuen: Jon.

Ez zen inolako nobedaderik. Jon fakultateko lagun bat zuen, azken bi urteetan berarekin aparteko gertutasuna izan zuena. Ez zen ezer berezirik, baina begirada batzuetan, keinu batzuetan, hitzik gabeko jarreratan, zer edo zer antzematzen zuen, nolabaiteko lokera edo horrelako zeozer.

Kuramara joan aurretik, ez zuen apenaz berarekin hitzik egin. Agian, biek jakin gabe, Akirak barne bidaia egiteko distantzia hartu zuen. Eta orduan, gau hartan, ez zion soilik mezu bat bidaltzea nahi, bere isiltasunaren zentzua partekatu baino.

Mugikorra hartu eta errekadua idatzi zion:

Aupa, Jon.

Japoniako mendidjetatik ibili naz. Kaminue galdera bategaz hasi naben eta isiltasunagaz bueltau naz. Oin ez dakit zetan zabizen, baina badakit zuretzako zeozer ekarri dotela. Ez da oparidje, ezta azalpena bez, beharbada, bakar-bakarrik izen leike zirkulue josteko haridje.

Ez zuen berehala bidali. Minutu batzuk egon zen begira barneak agintzen ziona entzuten. Gero, bidaltzeko botoia sakatu zuen.

Ez zuen berehalakoan erantzunik espero, eta ez zuen horren beharrik ere. Hala ere, ordu erdi geroago, pantailan mezua agertu zitzaion:

Ez dot jakin zelan esan, baina zure isiltasune faltan bota dot. Eta bai, hobeto da haridje josten hasteko, galdera eitie baino. Bidjer? Osteratxue, zeure berbak entzuteko eta isiltasunien ibiltzeko?

Akirari ezpainetan irriño sotila azaldu zitzaion, eta, erantzun lez, baietza helarazi zion.